



TXOSTEN POLITIKOA

*(2007ko abenduaren 1ean eta 2an egindako
V. Batzar Nagusian onetsitakoa)*

AURKIBIDEA

Orr.

I.- SARRERA	1
II.- KOIUNTURA AZTERKETA: HIRU ZIKLO AMAITZEAR DAUDE, ETORKIZUNA IDATZI BEHAR DUGU	3
○ ETaren zikloaren amaiera.....	3
○ Euskal politikan blokeen strategiaren amaiera	3
○ Ziklo baten amaiera Espainiako politikan	4
○ Etorkizunak konpromisoa eskatzen digu	4
III.- EAJ-PNV EUSKAL NAZIORAKO TRESNA GISA	7
1.- Partekatutako oinarriak	8
2.- Printzipio ideologikoak.....	8
IV.- EUSKAL NAZIOAREN ERRONKAK	10
1.- Bakearen erronka.....	10
2.- Erabakitzeko erronka.....	11
○ Bere etorkizunaren jabe den nazioa.....	11
○ Euskal Autonomia Erkidegoa	13
○ Nafarroatik eta Nafarroarako berezko estrategia	14
○ Iparraldetik eta Iparralderako aukera berriak.....	15
○ Estatuaren nazio anitzeko aldaketa. Galeuscat	16
○ Euskal herritarrek Europaren eraikuntzan izandako parte hartzea	18
○ Euzkadiren kanpoko proiektzioa, erronka berri bat	19
○ Euskal herritarrak munduan: Euskal Diaspora	19
3.- Gizarte eraikuntzaren erronka.....	20
○ Euskararen erabileraren normalizazioa hizkuntza anitzeko Euzkadi batean	20
○ Elkartasunaren erronka: pertsonentzako Nazioa	25
○ Sormena eta modernitatea.....	31
NORMALIZAZIO POLITIKOA LORTZE ALDERA ERABAKITZEKO ESKUBIDEA SUSTATZEA	35

I.- SARRERA

1895eko uztailaren 31n Sabino Aranak beste abertzale batzuekin batera Euzko Alderdi Jeltzalea sortu zuenetik, Aberri bat, Euskal Nazio aske bat eraikitzeko helburuaren aldeko bizi-tza politiko handiko eta ekimenez betetako 112 urte igaro dira.

Urte hauetan guztietan ugariak izan dira etengabe aldatuz joan diren gorabeherak eta egoerak, guri lotutakoak zein beste batzuei dagozkienak. Gure inguruan existitzen ziren herrialde batzuek emantzipazioa lortu dute nazioartean onartutako estatu errealtate gisa eta gaur egun Europar Batasuneko kide dira. Behinola boteretsuak ziren inperioek beren konkistak banan-banan nola deskolonizatzen ziren ikusi dute. Iraultzaren oihartzunarekin batera, joera ideologiko garrantzitsuak ate joka iritsi ziren eta, urte batzuk beranduago, bertan behera geratu dira suntsiezina zirudien burdinazko hesi baten antzera eraikitako horma bota zutenean.

Europako gerra ezberdinek biktimen izenez jositako zerrenda amaigabeak utzi dizkigute eta gatazka bakoitzaren ondoriozko lurralde banaketek aldaketa geoestrategikoak eragin dituzte. Demokraziari esker diktadura ezberdinak garaitzea lortu dugu eta hamarkadetan zehar hurkoen artean izan ditugun aurkaketak gainditzeko borondateak Europako proiektu komun baten hastapenetan kokatu gaitu. Proiektu horren helburua kontinente zaharrean bake iraunkorra bermatzea da, baina baita esparru ekonomiko, sozial, kultural eta politikoari dagokionez munduko lehenak izatea ere.

Urteek aurrera egin ahala Euzko Alderdi Jeltzalea hemen egon da, ez historiaren gorabeheren ikusle bezala, aldaketa dinamika honetako agente aktibo bezala baizik.

Bere izate politikoaren muina esaldi bakar batean laburbil daiteke: *“Euzkadi euskaldunen aberria da”*. Eta ideologia asko, enfrontamendu bortitzak eta joera berriak egon badauden arren, globalizazioaren aldi berria ahaztu gabe, baieztapen hori –*“Euzkadi euskaldunen aberria da”*– pisu handikoa da. Mugimendu politikoko bokazioarekin jaio zen alderdi bati eusten jarraitzen dio eta azken horrek, ehun urte hauetan sufrimendua eta mota guztietako kostu izugarriak pairatu dituen arren, buru eta derrigorrezko erreferente izaten jarraitzen du XXI. mendeko euskal gizartean.

Euzko Alderdi Jeltzalea Euskal Herriaren biziraupena lortzeko bitarteko gisa sortu zen. Horretarako, berezko proiektu politiko bat zuen: Euzkadi. Adour-etik Ebrorainoko nazio bat, betidanik nortasun-ezaugarri bereizgarriak eta historikoki egituratutako eskubide politikoak izan dituen. Zoritxarrez, eskubide horiek indarrez kendu zizkieten eta gaur egun “euskal gatazka” izenaz ezagutzen duguna eragin dute.

Gure alderdiaren helburuak, 2004. urteko Txosten Politikoan jasotzen ziren bezala, euskal herritar guztientzako esparru juridiko-politiko baten aldekoak dira. Era berean, esparru horrek beren izate nazionalarekiko eta errealitate historiko, kultural eta linguistikoarekiko egiazko errespetua barne hartzen du, beren etorkizuna zehazteko duten eskubidea, beren barne artikulazioa eta kanpoko harremana.

Lurraldea, subiranotasuna, nortasuna, gizartea, hizkuntza, kultura eta eskubide historikoak dira Euzko Alderdi Jeltzalearen proiektu nazionalaren oinarriak. Azken hori gurekin batera bizi diren emakume eta gizonen borondatean errotuta dago. Izateko borondatean. Uneoro nola bizi eta etorkizunean zer izan nahi dugun erabakitzeke borondatean. Askatasunez, nazioarteko gainontzeko nazio ezberdinduen eskubide eta onarpen berak izango dituen komunitate batekoak izateko borondatean.

Hori dela eta, EAJ-PNV bezalako alderdiaren zama ideologikoak gizartean sustraituta jarraitzen du. Izan ere, bere usteen sendotasuna eguneroko praxiaren malgutasunarekin batera uztartzen jakin du. Horregatik da, beharbada, EAJ-PNV euskal alderdi politiko nagusia militante kopuruari, lurralde eraginari, lidergo instituzionalari eta herri berrespenari dagokionez.

Euzko Alderdi Jeltzaleak bere sorrera eragin zuten helburuak lortzeko printzipioak berresten ditu.

Dokumentu honetan, lau urtetarako plan estrategiko gisa, gertatu diren edo gertatzen ari diren koiuntura aldaketak eta Euzko Alderdi Jeltzaleak etorkizuneko ekintza politikoari dagokionez jarraituko dituen ekimen eta ardatz nagusiak aurkeztuko dira.

Egunero beste batzuen mende egongo ez den, bere zoria aukeratzeko gai izango den, justuagoa eta askeagoa izango den eta bakean egongo den herrialde bat egitea, gizarte bat, aberri bat, eraikitzea ahalbidetuko duen ekintza politikoa.

II.- KOIUNTURA AZTERKETA: HIRU ZIKLO AMAITZEAR DAUDE, ETORKIZUNA IDATZI BEHAR DUGU

Txosten politikoa euskal politikarentzako fase berri bat izango denean indarrean egongo da eta bertan garatuko da. Eta aldi berri horretan errazagoa da ziklo politiko batzuen amaiera aurreikustea, etorkizunaren oinarriak baino.

Funtsean hiru dira amaitzear dauden zikloak. Azken urteotan euskal errealitate soziopolitikoa zeharkatu eta baldintzatu duten hiru ziklo.

- ⇒ **ETAren zikloaren amaiera.-** Motibazio politikoko indarkeriak ez du sekula zentzu edota leku etikorik izan gure artean. Eta gaur egungo euskal gizartean, azken 10 urteotan bizi izandako prozesuen ostean, mundu guztiak uste du indarkeria, objektiboki, euskaldunek beren emantzipazio nazionala, soziala eta ekonomikoa lortzeko oztopo nagusia dela.

ETAk bere adierazpenaren bitartez su-etena amaitu zela jakinarazi zuenean, Anoetako proposamena ere bertan behera geratu zen. Horrela, Batasuna berriro babestera igaro zen eta hark bere ordezkaritza eman zion. Horrela, uko egin zion euskal politikan egokituko litzaiokeen papera jokatzeari. Horrek guztiak izugarri zailtzen ditu elkarrizketaren bitartez konponbide bat lortzeko aukera errealak eta muturreko ezker abertzalearen oinarri soziopolitikoa baliogabetzen du. ETAren indarkeriaren zikloa amaitzear dago, Batasunak, EAE-ANVk eta EHAKek politika instituzionala egiteko duten gaitasuna geroz eta eskasagoa da eta ETArekin batera itozteko arriskua du.

Segur aski, azkeneko bake-prozesuak ez du heldutasunik eta ardurarik izan hura finkatzen lagundu izan lezaketan ezaugarriei dagokienez. Zentzu honetan, lehenago hartu behar ziren espetxe-politikari buruzko neurriak; baliteke argitasuna eta diskrezioa falta izatea, eta jokabide oztopatzailea eta hauteskondeekin lotutakoa soberan egotea. Baina komenigarria da funtsezkoa ez ahaztea eta, EBBak aurreko su-etena amaitzean egin zuen moduan, honakoa azpimarratzea: “ardura indarkeria berriro erabiltzea erabaki duenarena, hots, ETArenean soilik da”.

- ⇒ **Euskal politikan blokeen estrategiaren amaiera.-** Euskal politikaren azken hamar urteotan blokeen dinamika nagusitu da eta azken horrek gobernuak instituzioetan zuen aliantza politika ere aurretiaz diseinatzen zuen. Hala ere, azken legegintzaldi honetan Espainiako politikan egon diren gorabeherak PPren eta PSOEn arteko desadostasun nabarmenak eta beren oinarrien arteko ezberdintasun sakon eta konponezinak eragin dituzte. Horri guztiari nazionalismo instituzionalak ordezkatzeko duen

jardunbide zentrala bereiztu izana gehitu behar zaio, arretaz aztertu beharreko testuinguru berria eskaintzen digun post-ETA hurbileko testuinguru berri baten esperoan.

Ikuspuntu politikotik, lerro sozialistetan zein beren buruak ezker abertzalekotzat dituztenen artean, EB eta EA bezalako beste alderdi batzuek itxaropenez espero zuten “kataluniar erarako” aukera instituzionala hurbil zegoela ikusita, euskal politikan ziklo berri bat hastear dela uste dute baita ere.

- ⇒ **Ziklo baten amaiera Espainiako politikan.-** PPrentzat, su-etenaren amaierarekin batera sortu den testuinguru politikoa hurrengo hauteskundeetan ETAREN indarkeriaz baliatzeko estrategian sakontzeko aukera paregabea da. Era berean, PSOEek badaki su-eten iraunkorra hautsi izanak hurbileko etorkizuna kudeatzeko aukera gutxiago ematen dizkiola eta badaki, halaber, PPrekin izenpetutako terrorismoaren aurkako itunaren eremura, ia guztiz haren eskuetan dagoenera, itzuli ezin duela.

Egoera honetan, hurrengo hauteskunde orokorrekin batera, nolabait ziklo politiko bat amaituko da: PSOERI agortzen ari zaio anbigua izateko eta PPrende egoteko epea. Izan ere, ezaugarri horiek beren buruaren biktima bihurtu dute eta horren adibide ezin hobea da Nafarroan duela gutxi gertatutakoa; PSOEek Nafarroa Bai-rekin gobernu aurrerakoa eta anitza eratzeari uko egin zion Nafarroako Foru-Erkidegoan.

Hurrengo hauteskunde orokorrekin batera, bi alderdien zalantzak behin betiko amaituko dira. Irabazten duen alderdiak bere baitan egokitu zaien lekuarekin gustura ez dauden Naziok dituen Estatua zuzendu beharko du. Nazio horiek beren herritarren borondate demokratikoarekiko eta subiranoarekiko justuak eta errespetuzkoak diren oinarrietatik abiatuta beren estatua negoziatu nahi dute.

- ⇒ **Etorkizunak konpromisoa eskatzen digu:** ziklo batzuk amaitzean daudela aurreikusten dugu, baina etorkizunarekiko erreferentziak ez dira hain argiak. Iragana hil egin da, baina berria dena ez da oraindik jaino. Azken urteotan iguripenetik itxaropenera igaro gara, ilusiotik frustraziora. Indarkeriarekin elkarrizketaren bitartez amaitzeko azken apustua antzeman dugu eta alderdi-mahai baten aukera soslaitu dugu. Azken horren helburua, euskal gizartearen borondatearekiko errespetuan oinarrituta, normalizazio politikorako oinarritzko akordio bat lortzea litzateke.

Helburu bikoitz hori lortzeko zeharo konprometitu gara –eta etorkizunean ere halaxe egiten jarraituko dugu– eta Eusko Legebiltzarrean eta gorte nagusietan alderdien legea aldatzeko-ezabatzeko eta preso dauden pertsonekin lotutako politika humanitarioaren aldeko ebazpenak sustatu ditugu. Bestalde, orain arteko ekimen guztietan aktiboki parte hartu dugu

eta euskal alderdi politikoen artean akordio bat lortzeko oinarri metodologiko eta politikoak prestatu ditugu.

2007ko maiatzaren 27ko udal eta foru hauteskundearen ostean etorkizunerako bi ikaspen ondoriozta ditzakegu: a) EAJ-PNV euskal politikaren ardatz nagusia da, herritarrek halaxe erabaki dutelako, eta erdian dagoen aldetik bere lidergoko instituzioen gobernagarritasuna bermatuko du; b) herritarrek politika egiteko eredu jakin bat eskatzen dute, eraginkortasunean, zintzotasunean, errespetuan, gizartearen partaidetzan eta erabakiak hartzeko gertutasunean oinarrituta egon beharko duena. Era berean, Euzkadin nortasunarekin lotutako edota sentsibiltate sozial eta politiko handiko kontuei –diskurtsoa/praktikaren koherentzia mantenduz- arreta eskaintzea eskatzen dute.

Geroz eta agerikoagoa da herritarren eskariak asetzeko alderdi politikoetan eredu irekia eta integratzailea txertatzen ari dela. Ezbairik gabe, alderdiok etorkizuneko hauteskundeetarako kontuan hartu beharko genituzkeen gakoetako bat da hori. Euskal herritarrek eman diguten eta EAJ-PNVk kemenez, eraginkortasunez eta zintzotasunez aplikatzen jarraitu behar duen ikaspenetako bat da.

Euskal politika bidegurutze berri batera iritsi da. Baina bidegurutze horretan bazterrak definituta dituzten bide bakarrak dagoeneko erabili ditugunak dira. Eta bide berriak egitea beharrezkoa da, azken horietako sastrakak garbitzea. Hori da EAJ-PNVk lau urte hauetarako duen zeregina: Euskal Naziorako bidea egitea, euskaldunok Euzkadiren etorkizuna idazteko aukera izan dezagun baldintzak sortzea. **Katea ez da eten**, EAJ-PNVren historiaren 112 urteen ardatza Euskal Nazioa eraikitzea izan da. Euzkadi aske bat, pertsona askeen bizileku bat, lortzea da hasierako jeltzaleek, Sabinoren ideiak garatu zituztenek eta erbesteratze eta diktadura garaietako baldintzarik okerrenetan ideiak bizirik mantendu zituztenek, abertzale belaunaldi berriak eskuetan utzi zuten zeregina. Jeltzale horien omenez eta eraikitze prozesuan dagoen Euzkadirako ekarpen gisa, EAJ-PNVk, barne batasunak eta kohesioak eta gizartearen gehiengoaren babesak ematen dion indarrean oinarrituta, argi dauzka gutxi gorabehera hurbilekoa izango den etorkizunerako dituen erronkak eta konpromisoak.

EAJ-PNVren ustez, euskal gizartea sinetsita dago euskal gatazka politikoaren konponbidea bakea (giza eskubideen errespetua) eta normalizazio politikoa (subjektu politikoa bereiztea, erabakiak hartzeko eskubidea eta eskubide hori erabiltzeko akordioa) binomioaren araberrakoa izango dela. Laburbilduz, oinarritzko hiru printzipioetan oinarritutako erdiko ikuspuntua:

- **Elkarrizketa Politikoa**, Bakea lortzeko eta konponbidearen bideari ekiteko (normalizazio politikoaren arazoari zein gure gizarteko elkarbizitzarenari dagokionez) elkarrizketa ezinbesteko konpromisotzat duena. Alderdien arteko elkarrizketa irekia, azken horietako kideok gure proiektuak bakezaleak eta demokratikoak

diran bideen bitartez defendatzeko konpromisoa hartzen dugula kontuan hartuta.

- **Euskal gizartearen erabakiak errespetatzea**, Instituzioak eta euskal herritar gehienek borondatearen bitartez orain arte eraikitako esparru juridikoak errespetatzearekin lotuta dagoena. Bestalde, aldaketa aukeren legitimitate demokratikoarekiko eta aipatu horiek berritzeko eta aldatzeko errespetua ere barne hartzen du.
- **Gizartea eraikitzea**, euskal gizartearen aniztasunaren ezagutzatik eta onarpenetik abiatuta eta behartsuenekiko integrazio, garapen, justizia sozialeko eta elkartasuneko eredu batean oinarrituta. Gure Herriak XXI. mendean gaintitu beharreko aldaketa sakonei bermekin aurre egiteko gai den erreferentea.

III.- EAJ-PNV EUSKAL NAZIORAKO TRESNA GISA

Gure alderdia euskal herritarren kontzientzia pizteko jaio zen, XIX. mende amaieran gure lurraldea kolokan eta akidura egoeran zegoenean, gerra karlistak eta, bereziki, Foru Erregimena galdu zituen eta. Sabinoren deiak laster asko topatu zuen oihartzuna gure gizartean. Gure historiako 112 urteek zerbait baieztatzen badute, gure Alderdiak gizartean sustraitzeko duen gaitasuna da. Horretarako, proiektu politiko erakargarria proposatu du, askatasun maila handiagoa lortze aldera gure herriaren premiekin bat datorrena.

Alderdiaren eta gizartearen arteko osagarritasun hau bereziki garrantzitsua eta emankorra izan da azken hogeita hamar urteotan. Euskal nazioaren gaiak azken bi mendeetan ez bezala egin du aurrera.

EAJ-PNVk ondo ezagutzen du gure gizartea eta bere aniztasunaren berri du. Badaki bertan pertenezia nazionalerako sentimendu eta maila ezberdinak daudela eta gure artean herritar askok identifikazio dualak dituztela. EAJ-PNVk, bokaziozko, konpromiso instituzionalerako eta itunen aldeko euskal alderdi nazionalista gisa, beste aukera ideologiko batzuk errespetatzen ditu eta berezko proiektu politiko du, eta Euzkadiko gainontzeko indar politiko eta sozialei etengabeko elkarrizketa esparrua eskaintzen die, egunegun nazioa eraiki dezaten. Pertsona askeez osatutako Nazioa, Nazio ireki bat, erakargarria, modernoa eta Europar Batasuna eratzen duten nazioz gaindiko egituretan askatasunez integratutakoa.

Nazioa egiteko proposatzen dugun bidean bidai lagun guztiak garrantzitsuak dira, ez dago bazterketarik, indarkeria eta autoritarismoa salbu, ez eta betorik euskal gizartearen borondate askeari ere.

Laburbilduz, EAJ-PNVk, bere ideologiarekin eta kultura politikoarekin bat:

- o Euskal Nazioarenganako onarpen politiko eta juridikoa lortu nahi ditu eta hark, berdintasun egoeran, beste nazio batzuekin batera parte har dezala;
- o Badaki gizarte-ekimena, erakunde sektorial eta kulturalak eta, azken finean, antolatutako sozietate zibila Euzkadiko bizitza politikoaren indargunea eta motorra direla;
- o Instituzio demokratikoak gure helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko tresna politiko nagusiak direla uste du;
- o berdinen arteko itunaren aldekoa da, elkarmendekotasunaren politikarako ezinbesteko ezaugarria.

1.- PARTEKATUTAKO OINARRIAK

EAJ-PNVk uste du bere xedea Euskal Nazio aske bat eraikitzea dela, Euzkadi nazioarteko komunitatean berezko nortasuna eta ordezkapena dituen subjektu politikoa izatera irits dadin. Horretarako beharrezkoa da ondorengo oinarrietatik abiatzea:

- Euskal gizartearen aniztasuna onartzea.
- Nazio bat bide demokratikoen bitartez soilik eraiki daitekeela onartzea.
- Proiektuarekiko askatasunez atxikitze formulak soilik onartzen ditu. Horrenbestez, hertsapen edo inposizioko eredu oro baztertzeko, eta baita euskal gizartearen borondate demokratiko librea lortzeko oztopoak edota mugak ere.
- Autoeskakizun etiko batean oinarritutako nazionalismoarekiko konpromisoa.
- Euskal herritarren elkarbizitza arazoak konpontzeko inplikatzeko konpromisoa.
- Euskal gizarteari bizi-kalitatearen eta giza garapen indizearen eremuan hobekuntzak eskaintzea.

Ehun urteko historiaren ostean, gure nazionalismoa proiektu moderno eta eguneratua da, egungo eta etorkizuneko garaiek aurkezten dizkiguten erronkei bermeetan oinarrituta aurre egiteko formulazio politiko, sozial, kultural eta ekonomiko bizkorrena eta eraginkorrena duena.

2.- PRINTZIPIO IDEOLOGIKOAK

SUBIRANOTASUNA.- Helburua esparru politiko eta juridiko jakin bat errotzea da. Bertan, Euskal Herriaren subjektu kolektiboak bere etorkizun politikoa aukeratzeko eskubide osoa izan ahalko du: autodeterminaziorako eskubidea onartzea eta berau ondoriozko ordenamendu juridikoaren gailurra osatuko duten oinarritzko testu politikoetan finkatzea.

LURRALDE TASUNA.- EAJ-PNVk badaki zazpi lurraldeetan kontzientzia nazionalaren maila ezberdinak daudela eta horregatik bakoitzaren erabakitze gaitasuna eta askatasunez atxikitzea errespetatzen ditu. Bestalde, herritar eta lurralde guztiek Euskal Herriaren subjektu politiko komunaren baitan sartu ahal

izatea bermatzen du. Horretarako oztopo guztiak gaindituko ditu eta sartze hori askatasunez eta demokratikoki gerta dadin baldintza juridiko-politikoak ahalbidetuko ditu. Era berean, Trebiñoko eta Villaverde de Truciosko biztanleek Euskadin integrazeko duten eskubidea defendatzen du, askatasunez eta demokratikoki hori erabakitzen badute.

Prozesu politikoaren lurraldetasun ezaugarriak honakoa esan nahi du: Euskal Herriaren Eskubide Historikoen onarpenetik eta bermetik abiatuta, ezin hobeto ondorioztatzen den aukera konstituzionala sortzea.

KONTZIENTZIA NAZIONALA.- Prozesu politiko honen ondorioz garatu beharreko ekintza politikoa Euskadi guztian proposatzekoa eta eztabaidatzekoa da. Hala ere, berau eratzen duten lurralde bakoitzaren errealitate eta egoera politiko ezberdinak aintzat hartu behar ditu, gure gizartearen egiazko nahia entzute aldera. Horrenbestez, funtsezko ezaugarria euskal kontzientzia nazionala Euskadiko herritarrei luzatzean eta baieztatzean datza.

Era berean, EAJ-PNV, mugaz gaindiko erakundeen edota eskura dituen bitartekoen bitartez, kontzientzia nazionala zazpi herrialdeetatik haratago eraikitzeke konprometitzen da. Zentzu honetan, Udalbiltza-Udalbide bezalako udal oinarria duen instituzio nazionalak jokatzeko duen papera oso esanguratsua da.

Prozesuak ondorengo bi baieztapenak kontuan hartzen ditu: alde batetik, Euskadi nazio bat da eta, horrenbestez, eskubide politikoak ditu. Bestetik, gaur egungo errealitate instituzionalak zein euskal gizarteko nortasun aniztasuna ezberdinak dira. Nazio izaeraren baieztapena instituzio eta nortasun aniztasuna bezain erreala da.

Gure proiektu politikoa printzipio horietan guztietan oinarrituta dago, eta guztiek garrantzi bera dute.

IV.- EUSKAL NAZIOAREN ERRONKAK

1.- BAKEAREN ERRONKA

EAJ-PNVk uste du bakea, indarkeria gabezia oinarrituta egonda ere, hori baino askoz gehiago dela: elkarrizketarengandik bakarrizketarengandik baino hurbilago dagoen prozesuaren xedea da, hezkuntzarekin eta tolerantziarekin ezjakintasunarekin, begirunerik ezarekin edo axolagabetasunarekin baino lotura handiagoa duena. Pertsona guztiekiko errespetu handian oinarrituta egon behar duen prozesua.

EAJ-PNVk, su-eten iraunkor baten ostean, elkarrizketan oinarritutako indarkeriaren amaiera ahalbidetuko duten baldintzen alde lan egiten jarraitzeko konpromisoari eusten dio. Indarkeriaren amaiera horrek ETAk armak behin betiko alde batera uztea eragingo du. Abiapuntuak ETAk armak behin betiko alde batera uzteko erabakian oinarrituta egon behar du. Eta hori lortzeko, indar politikook, gizarte-agenteen eta instituzio publikoen parte hartzearekin batera, ETaren indarkeriaren mende dauden oinarri sozialak aldatzeko eta berriro orientatzeko beharrezko oinarri demokratikoak sendotu behar ditugu.

Horretarako, EAJ-PNVk ondorengo neurriak sustatuko ditu:

- Terrorismoa eta indarkeria gaitzestea eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasotako eskubideen urraketa salatzea.
- Hezkuntza, kultura eta distentsio, komunikazio eta adiskidetze politikoko eta sozialeko politiken bitartez indarkeria justifikatu nahi duen diskurtsoari legitimitatea ukatzea. Azken horiek baliagarriak dira mehatxua, inkomunikazioa, bazterketa eta sektakeriaren diskurtsoa gainditzeko.
- Pertsonen bizitza, askatasuna eta segurtasuna bermatzeko tresna demokratikoak erabiltzea. Terrorismoaren aurka borrokatzeko, Alderdien Legea bezalako ezohiko neurriak gaitzesten ditugu. Izan ere, Lege horrek eskubide zibil eta politikoak urratzen ditu eta adierazpide politiko orok herriaren botoak ematen dion ordezkaritza izatea galarazten du. Era berean, espetxe-legedi berezia, ezohiko espetxe-legedia eta, oro har, epaile naturalaren eskumeneko bermeak aldatzen dituzten neurri guztiak gaitzesten ditugu.
- Terrorismoaren biktima guztiak babestea eta sozialki onartzea, eta euskal gizartean bakea eta adiskidetzea lortzeko bide guztiak uztartzea. Horretarako, ezinbestekoa da frankismoaren biktimei ere babesa ematea, onartzea eta, hala badagokio, birgaitzea, bortxatutako ohorea eta ondarea

arintzeko eta berreskuratzeko euskal instituzioen eskuetan dagoen guztia eginez.

- Alderdien arteko elkarrizketa, indarkeriari elkarrizketan oinarritutako amaiera emateko, kontu politikoak esparru politiko demokratikoan soilik argitzen direla kontuan hartuta.

Bakearekiko dugun konpromisoarekin batera, euskal bizitza politikoari heldutasuna, baretasuna eta zentzua eman nahi dizkiogu, gizarteak begi onez ikusi dezala nahi dugu eta gizartearen parte hartzea, bizitasun demokratikoaren adierazle nagusia, sustatu nahi dugu: gure ardura da, EAJ-PNVrena, euskal herritarrek gu aukeratu gaituzte eta politika zuzentzeko.

2.- ERABAKITZEKO ERRONKA

⇒ Bere etorkizunaren jabe den nazioa

Euzkadi, subjektu politiko gisa, gainontzekoen onarpena eskatzen duen nazioa da. Horrela, bere legezko garapen politiko, sozial, kultural eta ekonomikorako beharrezko autogobernuko bitarteko guztiak eskuratu beha ditu. Hori da XXI. mendeko erronka. Estatu-nazio kontzeptu zaharrak edo homogeneotasun etniko, kultural edota politikoa ezin dira gaur egungo euskal nortasunerako oztopo izan. Are gehiago, Euzkadik Europako esparruan homologarriak diren alderdiei jarraiki definituta egon behar du.

EAJ-PNV sinetsita dago euskaldunen etorkizun politikoa indarkeria darabilen talde baten erabakien preso egongo ez dela. Talde horrek, era berean, balio etiko eta demokratikoak urratzen ditu eta ez du herriaren inongo babesik.

Bestalde, honako argudio faltsua ere ezin dugu onartu: “ETAk bizirik jarraitzen duen bitartean ezingo zaio euskal gatazkari ekin”. Hori aitzakia politiko bat besterik ez da, Euskal Nazioaren errealitatea eta bere eskubideak ez onartzeko.

Euzkadi bere erabaki askea eta boluntarioa errespetatuz eraikiko da, hark euskal nortasun nazionalen Euzkadirekin lotutakoa sentitzeko, bizitzeko eta bertakoa izateko modu ezberdinak, bere baitan existitzen den nortasun aniztasuna, txertatzeko duen gaitasunaren indarrari esker. Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidea, eta eskubide hori erabiltzea, egiazko topaketa eremu izan daitezela nahi dugu. Horrela, guztiok sentitu eta onartu ahalko dugu hori oinarri elkarbanatu gisa. Kanpoko ezarketarik eta betorik gabe.

EAJ-PNVren ikuspegi politikoa Euskal Herria subjektu politiko gisa onartzean eta aipatu horren determinazio askean datza. EAJ-PNVk, beraz, Euzkadi erabakitzeko gaitasuna duen subjektu politiko gisa onar dezatela sustatuko du. Horretarako, Estatu espainiar eta frantziarrarekiko mendekotasun egoera politiko eta administratiboaren estatusa gaindituko du.

Gaur egungo Euskal Nazioarentzako erronka handia orain arte estatu nazional zaharren egitura zurruna gaindituko duen antolamendu eta artikulazio politikoa topatzea da. Hau da Euskal Herriak nazio gisa dituen eskariei konponbidea topatzeko eta, Europako eta nazioarteko testuinguruan beste nazio batzuekin gertatzen ari den bezala, euskal gatazkari irtenbide bat emateko duen aukera handia. EAJ-PNVk une honetan erabakiak hartzeko hiru esparru handi daudela uste du (EAE, Nafarroa eta Iparralde), horietako bakoitzak askatasunez eta demokratikoki erabaki dezan eta euren arteko artikulazio egonkorraren bidean aurrera egin dezagun abiapuntu gisa. Muga bakarra Euskal Herria osatzen duten hiru eremu soziopolitiko horietako herritarrek adierazitako borondate demokratikoa da.

Oinarri hauen gainean posible izango litzateke aspaldikoa den gatazka politiko horretarako konponbidea bilatzea. Hala ere, gatazkak oraindik ere bertan jarraitzen du eta egungo eta hemengo Euzkadi du testuinguru, eta hori da guk konpondu beharrekoa. Eusko Legebiltzarraren 1990eko Deklarazioak Euzkadiren Autodeterminazio Eskubideari buruz azpimarratzen zuen moduan:

- eskubide hori herritarrek beren estatus politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala askatasunez eta demokratikoki aukeratzeko duten eskumenean datza. Horretarako, berezko esparru politikoa izan dezakete, edota beren subiranotasuna, guztiz edo partzialki, beste herrialde batzuekin parteka dezakete, eta
- eskubide hori erabiltzearen helburua Euzkadiren eraikuntza nazionala da, prozesu dinamikoa eta demokratikoa gisa. Berau erabakiek osatuko dute da eta Euskal Herriaren historian zehar plebisituaren aldeko izaera izango duten erabakiak ere barne hartuko ditu. Azken horiek koituntura historikoaren barneko eta kanpoko baldintzen, bere aukera errealen eta euskaldunen interesen arabera izango dira.

Euskal gizarteak gatazka politikoa konpontzeko eskatu die alderdi politikoei eta instituzio sistemari. Eta ahalik eta integratzaileena izango den erabaki bat lortzen saiatzeko ere eskatu digu, demokratikoki gure eskubideak eta aniztasun erreal hori bermatzen dituen aldi baterako bideari ekin diezaiozun. Gaur egun, baina, oraindik desberdintasunak daude eskubide kolektiboak dagokienez.

Era berean, ezin dugu ahaztu XXI. mendeko Euzkadiren normalizazio politikorako bideak Europar Batasuneko eremu politiko-instituzionalaren baitan gertatu diren aldaketekin bat datorrela. Aldaketa horiek gure xede nazionalak lortzeko aukera berriak eskaintzen dizkigute. Horretarako, beharrezkoa da onartutako eremu politikoa izan dezagula eta eragiten diguten kontuei buruzko

erabakiak har ditzagula, hots, Europako erabakiak hartzeko parte har dezagula funtsezkoa da testuinguru honetan.

⇒ Euskal Autonomia Erkidegoa

EAEren egungo errealitate politikoari dagokionez, Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten zazpi alderdi politiko ditugu eta ezinbestekoa da alderdi eta talde politiko guztien arteko elkarrizketa lortzea.

Gizarteak, alderdi politikook eta instituziook, indarkeriarik gabeko testuingurua eta elkarrizketa politikoa onartzeko beharra dugu, euskal gatazka behin betiko gainditzeko eta Euzkadiren eraikuntza sozialean aurrera egiteko ardatz nagusi gisa. Horiek izan dira, hain zuzen ere, urte hauetan guztietan EAJ-PNVren ekintzak alderdi politiko bezala eta euskal instituzioen lidergoari dagokionez, zuzendu dituzten irizpide nagusiak.

Aurrerakada nabarmena izan da, esparru etiko eta demokratikoan zein euskal herritarren ongizatearen adierazleen hobekuntzari dagokionez. Hori arro egoteko arrazoia da EAJ-PNVrentzat, baina aurrera egiten jarraitu behar dugu: bakea eta normalizazio politikoa lortzen saiatzea ezinbestekoa da eta garapen sozialaren ikuspegitik Euzkadi Europako herrialderik aurreratuenen artean kokatu behar dugu.

Euskal gizarteak EAE zuzentzeko gudan duen konfiantza berretsi du, Euskal Herri osoko bizitasunean eta modernitatean lehendabizikoa. Eta guk, alderdi nagusia garen aldetik dugun ardura kontuan hartuta, gainontzeko euskal alderdi politikoei elkarrizketa zintzoari berriz ere ekiteko proposamena luzatzen diegu, Euzkadiko bakea eta elkarbizitza politiko eta soziala baititugu hizpide.

EAJ-PNV sinetsita dago aurrera egin ahal izateko partekatutako bi printzipio onartu behar ditugula:

- Euskal herritar guztien giza eskubide eta askatasun zibil eta politiko guztiak errespetatzeko printzipio etikoa.
- Bakezaleak eta demokratikoak diren bideen bitartez, euskal gizarteak bere etorkizuna erabakitzeko duen borondatea errespetatzeko printzipio demokratikoa.

EAJ-PNVrentzako bakea lehentasun bat da eta horren alde lan egiten du instituzio guztietan. Jakin badaki ezinbesteko abiapuntua bizitzarekiko eta giza eskubideekiko errespetuan datzala.

EAJ-PNVk, era berean, elkarrizketa integratzailea eta bazterketarik gabekoa sustatzeko konpromisoa du, normalizazio politikoaren oinarrian dauden kontuei buruzko akordio politikoa lortze aldera. Euskal gizartearen borondatea errespetatzen duen akordioa, Estatu espainiarrarekiko harremanetarako

esparru juridiko-politiko berri bat, errespetuan eta itunean oinarritutakoa, zehaztuko duen proiektuaren aldeko akordioa.

Testuinguru honetan, alderdi politiko guztiek beren proposamenak aurkezteko eta defendatzeko eskubidea dute, eta euskal Instituzioek demokratikoki hartutako eta herriaren borondateak berretsitako erabakiak errespetatu behar dituzte.

EAJ-PNVrenzat, Eusko Legebiltzarrak 2004an onetsitako Estatutu Politiko berria pizgarri politikoa da, hala badagokio, babes demokratiko eta parlamentarioaren babesaren ikuspuntutik, dagoeneko lortu direnak gaindituko dituzten akordio berriak lortze aldera lan egiteko, negoziatzeko eta ekarpen berriak egiteko.

EAJ-PNVk euskal esparruan elkarrizketarako aukera emateko borondatea du, euskal gizarteak bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidean oinarritutako akordio politikoa ahalbidetuko duten baldintzak zehazteko elkarrizketa.

⇒ Nafarroatik eta Nafarroarako berezko estrategia

Nafarroaren etorkizunak, gainontzeko euskal herritarrekin lotutakoak edo bereiztutakoak, bere herritarren eskuetan egon behar du. Euskal nazionalista gisa euskal lurraldeak politikoki artikulatzeko lan egingo dugu, Nafarroako herritarrek erabakitzeko eskubidea dutela eta beren etorkizun politikoari buruz erabakitzen dutena errespetatu behar dugula kontuan hartuta.

Gaur egungo testuinguru politikoan, gure xede politikoei uko egin gabe, Nafarroako Foru Parlamentuan LORAFNA aldatzeko proiektu bat landu eta aurkeztu dugu. Azken horrek Estatutu Berriko Proiektuaren printzipio berdinak ditu, asoziazio askean oinarritutako harreman politiko berezi baten defentsari dagokionez.

Gure aldaketa proiektuaren arabera, Estatuarekiko harreman politikoko eredia eta erregimena Nafarroako gizartearen borondate demokratikoa bideratzean datza. Hitzaurrean autogobernuarekin lotutako foru erreferentzia argi bat dago. Izan ere, 1512an Nafarroa konkistatu ondoren, berau Gaztelako Erreinu sartu zen eta *“autogobernurako zituen Foru, Lege eta usadio guztiek indarrean eta bizirik jarraitu zuten: horrela, Nafarroa Gaztelako Erresuman sartu izana ez zen ezabaketaren bitartez gertatu, nagusiaren batasunaren bitartez baizik. Horrenbestez, Erreinu bakoitzak bere Lege, Lurralde eta gobernu zaharrei eutsi zien”* (I. Liburua. VIII. Titulua. XXXIII. Legea). Hori da Nafarroako eskubide historikoaren oinarri juridikoa, gerora 1839ko urriaren 25eko Legeak eta Espainiako Konstituzioaren Lehenengo Xedapen Gehigarriak berretsi, onartu eta errespetatu dutena. Sorrerako eskubide horretan oinarrituta, Nafarroak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea du.

Era berean, uste dugu Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak komenigarriak iruditzen zaizkien harremanak izateko eskubidea izan beharko

luketela, beren herritarren borondateak soilik mugatuta. Eta, etorkizunean, bi komunitateetako herritarrek askatasunez egitura politiko bateratua eratzea erabakiko balute, horri dagokion negoziazio prozesua, Estatuarekiko antolamendurako esparru berria eta berau demokratikoki berrestea nabarmendu beharko lirateke.

Aurrera egiteko tresna gisa, EAJ-PNVk Nafarroa Bai alderdiaren aldeko apustua egin du. Berau abertzale eta aurrerakoien arteko koalizioa da, bataren zein bestearen nortasunari eutsiz Nafarroa euskaldunaren aldeko lan bateratua bilatzen duena. Gainontzeko euskal lurraldeekin dituen lankidetzak harremanak estutu nahi ditu eta aurrerakoia eta bakezalea da: giza eskubideak defendatzen ditu eta azken horiek urratzea salatzen du, subjektu politikoak ere baden Nafarroaren alde dago eta herritarren parte hartzea eta Nafarroako aniztasun kultural eta soziala defendatzen ditu, jarduketa politiko demokratikotik babestu eta bermatu beharreko balio gisa.

Nafarroa Baik bere gain hartu du kultura politiko berri bat sustatzeko erronka, Nafarroako herritarren integrazio eta egituraketaren aldekoa, eztabaida irekian eta ezinbestekoa den adostasunean oinarritutako kultura. Koalizio hau, berez, kultura politiko berri horren ondorioa da, aniztasunari bertute gisa erreparatzen diona eta zeharkakotasuna esperientzia politiko ezberdinetan aplikatzen duena: gizarte kulturazintzean sinesten duten eta egun Nafarroa Ofizialetik baztertuta dauden sektore dinamikoekin adostasuna bilatuz aldaketa politiko nahi duten nafar aurrerakoiez osatutako koalizio bat.

Gaur egun, nafar ugari artega, atsekabetuta eta nahastuta dauden garai hauetan, Nafarroa Bai barne kohesioko eta heldutasun politikoko ereduak izan da, baretasuna eta zentzua erakutsi ditu ezaugarri nagusi gisa sumina eta banaketa zituela zirudien testuinguru honetan. Era berean, kontuan hartu behar dugu azken bi horiek gizarte nafararekin zerikusirik ez duten interes eta helburu soziopolitikoek eragin dituztela. Bestalde, Nafarroa Baik gauza ugari lortu ditu, horien artean nafar askok, modu positiboan, Nafarroak erabakitzeko duen eskubidearen oinarri politikoak onar dezatela, elkarbizitza politikorako Nafarroa bere erabakiak hartzeko ahalmena duen subjektu politikoak dela onar dezatela. EAJ-PNVk, etorkizunari begira, Nafarroa Bairen aldeko apustua egiten du berriro ere, orain arte koalizioaren jarduketa politikoak zuzendu duten balioen errespetuan eta sakontzean oinarrituta.

⇒ Iparraldetik eta Iparralderako aukera berriak

Euskal Herria Pirinioen alde banatara hedatzen den errealitatea da. Eta gure xede politikoak euskal lurralde guztiak artikulatzea da, herritarren adostasunarekin beti ere. Mugarik gabeko Europa batean, Europako eremu komun bat partekatzeak aukera ugari eskaintzen dizkigu, alde guztietatik aprobetxatu behar ditugunak: soziala, azpiegiturekin lotutakoa, instituzionala, politikoak, ekonomikoa eta kulturala.

60ko hamarkadatik hona, Iparralden Euskal Departamentu bat sortzea da EAJ-PNVren eskari nagusia, eta beste alderdi eta Batera bezalako beste gizarte mugimendu batzuk bat datoz horrekin. Eskari hori enpresariak eta merkatariak XIX. mendean ere egin zuten, arrazoi ekonomikoak zirela eta.

Euskal Departamentua sortzearen aldeko agente politiko nazionalistak eta euskaldunak zein sektore sozialok hiru helburu lortzeko lan egiten gabiltza: euskararen ofizializazioa, Nekazaritza Ganbera sortzea eta goi hezkuntzako Europako eremuan (GHEE) Euskal Unibertsitate bat sortzea. Horiek dira Iparralden Euskal Departamentu bat edo berezko instituzio politiko bat lortzearen aurreko urratsak.

Zorionez, alderdi abertzaleen eta euskarekiko, gizartearekiko eta hizkuntza anitzeko hezkuntzarekiko konpromisoa duten sektoreen lan pedagogikoari esker, eta baita EAEko instituzioek eskaintzen duten garapen eta modernitate ereduari esker ere, azken urteotan aurrerapauso nabarmenak eman dira. Are gehiago, euskal lurralde horretako sektore dinamikoak geroz eta gehiago zehazten ari dira Iparralderen berezko nortasun soziopolitikoarekiko duten konpromisoa. Eta EAEn eredu instituzionala duela bi edo hiru hamarkada baino hurbilagoetik eta erreferentzia handiagorekin antzematen dute.

Zentzu honetan, EAJ-PNVk Udalbiltza-Udalbideren lana sustatzen jarraituko du udal oinarriko instituzio nazional gisa, eta baita Euzkadi-Akitania harremanen esparruko lankidetzak, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskararen Bulego Publikoaren arteko akordioak, eta Iparralderen eta Hegoalderen arteko egitura iraunkorra sortzea edota Bidasoaren iparraldeko eta hegoaldeko instituzio publikoak bilduko dituen Euro-eskualdeko Konferentzia.

“Frantses erara” deszentralizatzeko eta autonomiak edo autogobernuak ez dute inongo zerikusirik. Hala ere, Europako testuinguruak autonomia instituzionalerako bidean aurrera egiteko baldintzak eragin ditu.

Egungo testuinguru politikoan, EAJ-PNVk uste du autonomia, askatasunak berreskuratzeko eta demokrazian sakontzeko prozesu baten esparruan, xede instituzional onargarria dela, Estatu frantziarraren zein eraikuntza nazionalaren ikuspuntutik. “Euskal Herriaren Lurralde Kolektibitateko” Estatutu bat nahi dugu, departamentu eta eskualde baten eskumenak eta ahala barne hartuko dituen eta politika linguistikoaren eta mugaz gaindiko lankidetzaren esparruan berezko eskumenak izango dituen.

Instituzio hau, herritarrekin batera adostutakoa, Europako herrialde askotan existitzen diren autonomien antzera garatuko da. Uste dugu epe ertainerako konponbidea dela, Europar Batasunaren esparruan Euzkadirentzako aukera ezberdinak eskaintzen dizkiguna.

⇒ Estatuaren nazio anitzeko aldaketa. Galeuscat

EAJ-PNV, CiU eta BNGren arteko itun estrategikoaren hastapenak 1923ko Itun Hirukoitzean eta 1923ko Galeuzkan bilatu behar ditugu. Altxamendu militarrik

azken horren porrota eragin zuen, erbestean Agirre lehendakariak, Castelaok eta Pi i Sunyerrek gure nazioen arteko anaikidetasun eta elkartasun sentimenduari eutsi bazioten ere. Gaur egun ere sentimendu horrek bizirik dirau euskal gizarteko sektore zabaletan eta uste dugu Estatuaren nazio anitzeko egituraketa batek euskal Nazioaren, kataluniarraren eta galiziarraren onarpen juridikoan eta politikoan aurrera egitea ahalbidetuko lukeela.

1949ko Deklarazio Politikoak jada jasotzen zuen moduan, "EAJ-PNVk beren askatasun nazionala eskatzen duten herriekiko errespetua eta atxikimendua adierazten ditu eta, bereziki, Kataluniarekiko eta Galiziarekiko. Azken horiekiko elkartasun aktiboa berresten du, Euzkadiren antzera, beren nortasuna guztiz garatzeko sistema politikoa ezarri dadin".

1998ko uztaileko Bartzelonako Deklarazioak Estatuaren nazio anitzeko egituraketaren diskurtsoa berrartu eta eguneratu zuen. Eta, ia 10 urte beranduago, Galeuscat Aliantzak lan bateratuaren aldeko urratsak ematen jarraitzen du, Estatuko instituzioetan eta Europan. Galeuscatek, egungo diskurtso zentralista eta unifikatzailea puskatzeko eta estatuaren egiturak modernizatzeko, hirugarren eremu erreal gisa islatu ahalko duen kultura politikoko funts bat existitzen da.

Galeuscaten arabera, Estatu espainiarrak nazio anitzeko errealitatea eta nortasun, kultura eta hizkuntza aniztasuna onartu beharko lituzke. Boterea herrian, herrietan, oinarritzen dela azpimarratzen duen printzipio demokratikoa, ez da estatu subiranotasun kontzeptuarekin lotutako unitarismoaren, bertikaltasunaren eta negoziatu ezinaren bitartez adierazten.

Nortasun nazionalak ezin dira behar bezala artikulatu erregionalizatutako estatuaren esparru instituzionalean edota federalismo simetrikoan, aldi berean eta berdin-berdinak diruditen arren zeharo ezberdinak diren bi prozesu egin izanaren ondorio gisa: estatuaren deszentralizazioa eta bere nazio anitzeko artikulazioa.

Autonomia erkidego berriek ere nazionalitate izendapena jasotzeak azken horren esanahi politikoa indargabetu du. Nazionalitateen eta eskualdeen arteko bereizketa konstituzionala ezberdintasun soiletara murriztu da, kasu batzuetan aldi baterakoak besterik ez direnak, eskumenen eta atribuzioen bilakaerari dagokionez. Horrela, eredu autonomikotik uniformizazio dinamika batera bitarteko garapena gertatu da. Beharrezkoa da nazio anitzeko errealitatea konfigurazio asimetrikoaren potentzialitatean islatzea, ez bakarrik autogobernuaren eduki administratiboari dagokionez, baizik eta baita estatus politikoari eta harremanei dagokienez ere. Nazio anitzeko estatuetan, herritarren arteko eskubide berdintasuna edota herri ezberdinen arteko elkartasuna ezin dira eskubide nazionalak baliogabetzeko aitzakia gisa erabili, guztiak ere helburu bateragarriak baitira.

Nazio anitzekoa izendatutako estatu bati emandako erantzun konstituzionala izaera hori onartzean eta norbanakoen gizarte homogeen batek nazio anitzeko Estatu bat antolatzeke balio ez duela ulertzean datza. Izan ere, nazioak Estatuan integartzeko nazio gisa onartu behar dituzte. Gertakariak erakusten

dutenez, jatorri jakobinoko Estatu-nazioa ez da modernitaterako biderik egokiena.

Galeuscaten estrategia aniztasuna artikulatzeko tradizio federal eta konfederal handiekin lotuta dago, modernitatera iritsi ahal izateko beste bide bat islatzen duen eta gizarte askoren askatasuna eta garapena bermatu dituen joera batekin. Eredu politikoak sarean eta modu pluralista batean eraikitzekeo dugun bokazioa ez da Estatu espainiar edo frantsesera soilik mugatzen: bereziki Europar Batasuna eta, azkenik, mundua kontuan hartzen dituen bokazioa da. Eta gure nazioak nazioartean esparru juridiko-politikoari dagokionez onar ditzaten lan egingo dugu.

⇒ Euskal herritarrek Europaren eraikuntzan izandako parte hartzea

Europa aukeraz betetako eremua da: a) gurea bezalako xede nazionalak artikulatzeko; b) praktika politikotik subiranotasun absolutuaren kontzeptua aztertzekeo, eta c) lankidetzaren bitartez ikasteko. Arrazoi horregatik, EAJ-PNVk Europaren aldeko apustua egin izan du betidanik, gaur egungo eredu estaturik gabeko nazioentzako onena ere ez dela badakien arren.

Are gehiago, 1948an jada EAJ-PNV bere aniztasuna errespetatzen zuen Europa bateratu baten aldekoa zen. Europako gainontzekeo herri guztiekin batera Euskal Herriarentzako ere lekua izango zuen Europaren aldekoa.

EAJ-PNVk uste du erabakitzeko eskubidea –eta geroz eta garrantzi handiagoarekin– gure autogobernuari eragiten dieten erabakiak hartzekeo Europako prozeduretan aktiboki parte hartzearekin lotuta dagoela. EAJ-PNVren ustez, Euzkadirentzat funtsezkoa da integrazioari dagokionez aurrera egitea eta, era berean, ahots propioa izatekeo prozedurak eta estatuen mendekotasunik gabeko ekintza politikoak egitekeo gaitasuna lortzea.

Estatu-nazioa oinarri tradizionalen gainean eraikitako Europar Batasuna ez da nahikoa gure nahiak lortzekeo. Guretzat itxaropentsua da Europa estatuen, nazioen eta gizarteen arteko harremanak artikulatzeko modu berri baten katalizatzailea izatea, bakoitzarena eta komuna dena berriro ere definitzekeo eremu komuna, aniztasunari eta batasunari dagokionez. Hori dela eta, Europar Batasunak pentsamendu konstituzional berria behar du, nazio, lurralde eta subiranotasun hirukote zaharra sakralizatuko ez duena eta erabakiak hartzekeo eremuak errealitate eta eragile berriekin berriro formulatzea eragingo duena. Zentzu honetan, Europako mapa berriro egituratzearen alde lan egin beharra dago, subsidiarioritasun printzipioan oinarritutako mapa baten alde, Europako komunitate transnazional batean gure lekua topatzea ahalbidetuko diguna.

EAJ-PNVk lan egingo du Europak homogeneousazioaren alde egin ez dezan, Europako esparru juridiko eta politikoa artikulatuko duen eta bere nortasun aniztasuna onartuko duen kultura publikoaren alde baizik. Arrazoi horregatik eta gure europazaletasuna dela eta, egungo Europar Batasunarekiko kritikoak gara. Izan ere, berau gobernuen arteko hartu-emanera mugatzen da kasik,

herritarren parte hartzea oso eskasa da, ez dago gizarte edo segurtasun eredurik eta helburu gutxi dauzka mundu mailako gobernantziari dagokionez.

⇒ Euzkadiren kanpoko proiektzioa, erronka berri bat

Poliki-poliki, Europar Batasunaren pentsamoldea aldatzen ari da eta estaturik gabeko nazioen, eskualdeen eta hirien papera geroz eta gehiago baloratzen du, aipatu horiek garapen ekonomikoa eta gizarte kohesioa sustatzen dituzten aldetik. Aniztasun honek, arazoak konpontzeko eta erronkei aurre egiteko eraginkortasunaren isla gisa, Europar batera bizi diren nortasunen aniztasuna adierazteko abantaila du. Horrek, eragiten diguten erabakietan parte hartzeko dugun eskaria indar handiagoz justifikatzen du. Honek garrantzi berezia du legegintza eskumenak eta finantza gaitasuna dituzten nazio eta eskualdeen -Euzkadi tarteko- kasuan.

Horregatik guztiagatik uste dugu globalizazioa, lurraldeak berriro ere egituratzeko modu gisa ulertuta, Euzkadirentzako aukera bat izan daitekeela. Bestalde, lehiakortasunaren abantaila honako ezaugarriak dituzten eskualdeei lotuta dago: a) instituzioak (autogobernu gaitasuna), b) baliabide sozioekonomikoak (garapen ekonomikoko eta kapital sozialeko maila), c) ezaugarri kulturalak (lurraldearen idiosinkrasia) eta d) komunikazio azpiegiturak.

Beren bizitasunari eta nortasunari eusteko gai diren nazio eta lurraldeak dira, hain zuzen ere, irekitzea balio gisa onartu dutenak.

Globalizazioak barnekoaren eta kanpokoaren arteko bereizketa lausotu du, ardurak estatuaren eta estaturik gabeko gobernuen artean banatzeaz batera. Zentzu horretan, EAJ-PNVk “paradiplomaziaren” fenomenoei, estaturik gabeko gobernuetatik abiatuta ere gara daitezkeenei, erreparatu behar die bereziki.

EAJ-PNVk uste du, gaur egungo egoera ikusita, garrantzitsua dela nazioarteko esparruetan Euzkadiren irudia aditzera ematea.

⇒ Euskal herritarrak munduan: Euskal Diaspora

Euzkaditik kanpo bizi diren euskal herritarrek Herrialde eta Alderdi gisa geroz eta kontzientzia handiagoa dutenez gero, ikuspegi hori gure proiektu eta ekintzetan txertatu behar dugu. Egun Euzkadin bizi direnek ez dute euskal nortasunari, hizkuntzari edo kulturari buruzko eskusibitaterik: “Euzkadirekin lotutakoa dena” definitzeko eztabaidak betiko iraungo du gure artean, bizi garen lekuan bizi garela. Pertsona asko, Euzkaditik kanpo bizi arren eta beste herrialde batzuetan jaio diren arren, euskal herritar sentitzen dira, beren modura, eta Euzkadiren izen eta irudi ona hedatzen dituzte munduan. Horregatik da beharrezkoa euskal komunitatea bere osotasunean irudikatzea, Euzkadirekin lotutakoa zabaltzea, euskal errealitate transnazional eta lurralderik gabeko hori txertatzeko.

Diasporen balio nagusia estatuen mundu ordenak kultura eta nortasun errealitateak agortzen ez dituela eta estatuak nahi zuten homogeneousazioa bete ez dela erakustean datza. Estatu-nazioaren proiektua lurralde bakar batean, muga geografiko eta politiko egonkorrek zehaztutakoan, antolamendu politikoa, praktika ekonomikoak eta nortasun erreferentziak bat etortzean oinarrituta zegoen. Egungo munduan, beren nortasuna erreferentzia sub edo supra estatukoaren bitartez definitzen duten pertsonen kopurua hazi egin da. Eta Euskal Diasporak gaur egun duen izaera lurraldez kanpokoak eta kosmopolitak esperientzia transnazional bat islatzen du, munduko komunitate baten ametsa, uniformizazioaren aurkako erresistentzia batena, ezberdintasunak eta oposizioak baino haratagokoa.

Diasporak nazionalistoi aurkezten digun lehen erronka globalizatutako euskal kolektibo baten errealitatea ezagutzea da: a) komunikaziorako teknologia berriak erabiliz; b) emigrazioari buruzko ikerketak sustatuz; c) emigrazioarekin eta erbestearekin lotuta ditugun kontzientzia kolektiboa eta esperientzia kontuan hartuz, emigranteen oinordekoak ulertzeko eta hartzeko eta gure barne kohesioa hobetzeko.

Euskal Diaspora Euzkadirekin lotutakoa munduratzeko erronka bat ere bada. Euskal Herriaren erakusleihu unibertsala da, tresna zoragarri bat eskaintzen diguna munduan egiaz garena aditzera emateko: bakea maite duen gizartea, eta modernoa.

Mendeetan zehar kanpoko euskal norbanako eta komunitateek Euzkadiren alde modu informalean lan egin dute eta paradiplomazia moduko bat ezarri dute. Hori gehiago sustatu daiteke munduko egungo eremu publikoak diasporen antolamendua ahalbidetzen duela kontuan hartzen badugu. Horregatik, bereziki politikoa den ikuspegitik abiatuta, EAJ-PNVk Diasporaren mobilizazio ahalmenak eskaintzen dizkigun aukerak erabiltzeko eta herrialde hartzaileen kanpoko politikan eragina izateko konpromisoa hartzen du alde batetik; eta beste aldetik, Diasporaren ahalmena Euskal Herria, bere kultura eta bere hizkuntza, turismoa edota merkataritza onartzearen alde erabiliko du.

3.- GIZARTE ERAIKUNTZAREN ERRONKA

⇒ Euskararen erabileraren normalizazioa hizkuntza anitzeko Euzkadi batean

Euskara bere testuinguruan: aniztasun linguistikoa.-

Gaur egungo munduan, eleaniztasuna da araua, eta elebakartasuna salbuespena. Euskara da Euskal Herriaren berezko hizkuntza eta gure

hizkuntza nazional komuna. Gaztelera eta frantsesa ere gure hizkuntzak dira eta beren eremua ingelesarekin batera partekatzen dute. Eta hizkuntza arloan ditugun helburuak eta estrategiak definitzeko orduan honakoak kontuan izan behar ditugu: a) euskarak eta euskaldunek pairatzen duten diglosia egoera; b) gutxienez lau hizkuntza horiek aldi berean dituen gizarte testuingurua.

Hizkuntza-aniztasuna modernitateari eta etorkizunari lotuta dago. Hori EAJ-PNVren diskurtsoa ere bada: euskarak, gure nortasunaren ezaugarri garrantzitsuenak eta definitzen gaituen hizkuntza denak eta munduko kultura-aniztasunean berezko izaera ematen digunak, modernitatearen oxigenoa arnasten eta sormenarekin eta berrikuntzarekin lotutako esparruetan prestigioa eta presentzia irabazten jarraitu behar du bere etorkizuna hobeto bermatzeko.

Hizkuntza-aniztasunerako beharrezkoa da hizkuntza ofizial ezberdinen hiztunek beren hizkuntza erabiltzeko eskubide bera izan dezatela eta gizarteak eta ordezkari politikoek eskubide hori babes eta errespetarazi dezatela. Gaur egun eta hemen, Euzkadin, euskaldunak dira beren hizkuntza edozein lekutan eta edozertarako erabiltzeko zailtasunak eta oztopoak dituztenak. Horrenbestez, hizkuntza-aniztasunaren alde zerbait egiteak, ekolinguismoa praktikatzek, euskararen aldeko politika positiboak eta jarrera aktiboak sustatzea esan nahi du bereziki. Ekitaterako ezinbesteko ezaugarria da. Ezin da inolaz ere justifikatu euskararen erabileraren indarberritzea edo normalizazioa gaztelarako edo frantseserako eta hizkuntza horien hiztunentzako mehatxu bat denik. Ildo horretatik, EAJ-PNVk bere konpromisoari eutsiko dio euskararen presentzia handiagoa izan dadin, bere Erakundearen barneko zein kanpoko jardunean.

Hizkuntza kontua eraikuntza nazionalaren ikuspuntutik.-

Hizkuntza bat hegemonikoa izatea eta beste batzuk azken horren mende bizitzea baldintzatzen duten arrazoiak ez dira hizkuntza esparrukoak. Beharrezkoa da hizkuntzen arteko berdintasuna aldarrikatzea eta, aldi berean, beren dimentsio indibidual eta soziala nabarmentzea, hots, norbanakoaren esparru pribatukoak diren arren, kolektibitatearen baitan soilik gara daitezkeela.

Euskara da euskal gizartearen hizkuntza esparruan ere anitza eta uniformizaziorik gabekoa dela adierazten duen ezaugarri nagusia. Eta integratuagoa eta orekatuagoa den euskal gizarte baterako bideak desoreka linguistikoa gaindi dezagula eskatzen digu, euskara, euskal herritar guztion ondarea den aldetik, gure gizartearen erabilera arrunteko hizkuntza bizia ere izan dadin lan egitea.

Gaur egun herritar orok du euskaraz bizitzeko eskubidea, baina horretarako ezinbestekoa da herritar elebidunez (edo eleanitzez) osatutako gizarte bat lortzea, komunikazio-gaitasun ezberdina izango duten pertsonekin, noski. Helburu hori pazientziaren, konpromisoaren, malgutasunaren eta gizarte adostasunaren bitartez soilik lor daiteke.

Malgutasuna da euskaldunek euskara berreskuratze aldera gizartea pixkanaka inplikatzeko eskaini dezaketen balioa, eta hizkuntza hegemonikoaren hitzunek deserosotasunak onartu behar dituzte hizkuntza elkarbizitza osasuntsuago bat lortzeko. Era berean, euskara ikasten saiatu beharko lirateke eta kontuan hartu beharko lukete euskaldunak direla, espezifikoki, aniztasuna elkarbizitza horretarako balio gisa ematen dutenak.

Euskararen legezko estatusa.-

EAEen euskara berreskuratzeko eman diren aurrerapausoak begien bistakoak dira: herritarren eskubide linguistikoak juridikoki onartu dira eta botere publikoari ardura zehatzak eman zaizkie. Horrela, elebitasun errealerara eramango gaituzten sustapeneko politika aktiboak ahalbidetu dira. Hala eta guztiz ere, euskararen aldeko legedi positiboa behar izatea ez da nahikoa. Gakoa euskaldunen zein oraindik ez direnen nortasun eta kontzientzia linguistikoan datza.

EAEk esparru honetan lortu duen “arkitektura juridikoa” ahalbidetu eta baloratzen dugunok, euskal administrazio guztiek (nazionalak, foralak eta udalarenak) herritar orok beren aurrean nahi duten hizkuntza ofizialean hitz egiteko duten eskubidea bermatuko dutela sustatzeko konpromisoa dugu. Bestalde, administrazio periferikoek, elkarteek eta Estatuko zerbitzu-enpresek eta Justizia Administrazioak ere eskubide hori bermatu beharko luketela uste dugu eta guk, bereziki, sentsibilizazio kultural eta linguistikoko politika aktiboak sustatu beharko ditugu, herritarrengan Estatuko hizkuntza koofizialen erabilerarekiko jarrera positiboak sustatze aldera.

Zentzu berean, Europako instituzioei Europako egiazko politika linguistiko bati ekiteko eta Europaren hizkuntza anitzeko errealitatearen onarpen formala esparru praktikora eramateko dagoen beharra helaraziko diegu. Horrela dago jasota Eskualdeetako eta Hitzun Gutxiko Hizkuntzei buruzko Europako Gutunean eta, era berean, Estatu frantziarrak berau onar dezala eskatzen jarraituko dugu.

Nafarroari eta Iparralderi dagokienez, beharrezkoa da bi gauza azpimarratzea:

- Nafarroan euskara babesteko eta onartzeko legezko esparruak Foru Erkidegoko herritar guztien eskubide linguistikoak onartu beharko litzuzke eta euskararen ofizialtasuna lurralde guztira hedatu beharko luke. Izan ere, herritarrak dira eskubide linguistikoaren titularrak, bizi diren eremu soziolinguistikoan bizi direla;
- Iparralden euskara ofizialki onartzea ezinbestekoa da berau derrigorrezko hezkuntza sisteman “eskubide osoko” irakas-hizkuntza gisa finkatu dadin eta instituzio publikoek euskararen eta berdintasun linguistikoaren aldeko politika aktibo eta positiboak susta ditzaten.

EAJ-PNVk politika linguistikoaren arteko koordinazioan sakondu nahi du Euzkadiko hiru administrazio esparruei dagokienez, euskara euskal herritar guztien eta Europaren kultura ondarea baita, ezaugarri eta muga politikoen gainera.

Funtsezko kontua: euskararen onarpen soziala.-

Euzkadiko gizartearen gehiengoa euskararen aldekoa da, pertsona batetik bestera aldaketa nabarmenak egon daitezkeen arren: batzuek euskara berezko hizkuntza gisa sentitzen dute eta esparru guztietan erabili nahi dute, eta beste batzuek, berriz, aukera politiko edo ideologiko jakin batekin lotzen dute; beste batzuk onarpen sinbolikora mugatzen dira; laugarren talde batek euskara “hemengo zerbit” dela baina “berea” ez dela azpimarratzen du. Azkenik, gizarte konpromisorik izan gabe euskara onartzen duenik ere badago, euskara euskaldunei edo euskaltzaleei soilik dagokien zerbit izango balitz bezala.

Funtsezkoa da elebitasunaren eta eleaniztasunaren aberastasuna azaltzea, hizkuntza-aniztasun osasuntsu bat lortzeko euskara geroz eta herritar gehiagok erabili behar dutela adieraztea.

EAJ-PNVk politika linguistiko aurrerakoi bat sustatzeko konpromisoa du, euskararen inguruko ikuspegi komunitarioarekin lotutakoa. Eta euskara oinarri finkotzat eta funtsezko ezaugarritzat duen diskurtsoari eutsi behar diogu, azken horren gainean Euzkadi bezalako nazio politiko eta ideologikoki anitzean elkarbizitza eraikitzeko.

Paraleloki, betidanik euskara ondare komuna dela, eta ez soilik nazionalismoarena, esateko izan dugun konbentzimendu berarekin, beren buruak nazionalistatzat ez dituzten pertsonak euskara eta azken horren erabileraren normalizatorako konpromiso aktiboa bere egin ditzatela nahiko genuke: inor ez dago betebehar horrek arrakasta izan dezan eraginkortasunez jokatzeko ardura sozialetik salbuetsita.

Helburua euskara hizkuntza nazional komun gisa duen hizkuntza-aniztasun erreala lortzea da. “Euskaraz eta kitto” gisako planteamenduak errealitateetik urrun daude, eta baita euskal gizartearen borondateetik ere. Gure helburua egiazko aukera berdintasuna lortzean datza eta, etorkizuneko euskal gizarte horretan, herritar gehienek euskara aukera dezatela nahi dugu. Eta hizkuntza-aniztasuna errealitate bat izatera irits dadin, konpondu beharreko arazoa euskararen ahultasun egoerarekin lotutakoa da: ez bada hizkuntza indartzen, azken horren erabilera ez bada etengabe hazten, euskal gizarte egunetik egunera elebidunagoa ez bada, ez dugu hizkuntza-aniztasun erreala lortuko.

Euzkadin, normalizazio linguistikoarekin lotuta arazoak eragiten dituen ez da euskara dakien eta erabili nahi duen herritarra, hizkuntza hegemonikoaren elebakartasunera mugatzen dena eta euskara eguneroko bizitzako esparru guztietan erabili nahi dutenei trabak jartzen dizkiena baizik. Argi eta garbi utzi

behar dugu gaur egun eta hemen hizkuntza-aniztasuna babesteko eta garatzeko guztiok euskararen alde lan egin behar dugula. Gaztelerak eta frantsesak bermatuta dute etorkizuna, euskara ez da haietzako mehatxu bat. Horregatik hain zuzen ere, *ekologia* linguistikoaren helburua lortzeko beharrezkoa da euskararen erabilera sozialaren normalizazioaren alde lan egitea.

Etorkizuneko erronka: euskararen erabilera.-

Euskararen erabilerak behera egin du Iparralden eta, oso gutxi bada ere, zertxobait hazi da Nafarroan. Azken hogeita bost urte hauetan EAEn hazi da nabarmen. Gaur egunera bitartean egindako bidean une onak eta txarrak egon dira, baina, oro har, onak nagusitzen dira. EAEn diseinatzen eta praktikatzan den politika linguistikoa eta bertako bilakaera linguistikoa eredu garriak dira Euzkaditik kanpo eta asko ikertu da haien inguruan.

Beharrezkoa da aurrerapausoak aditzera ematea eta euskal gizartearen ahalegin handia nabarmentzea. Iraganak ez du baina etorkizuna bermatzen. EAJ-PNVko gizon-emakumeok euskararen etorkizuna bermatzearen alde lan egiteko konpromisoa dugu eta ez dugu iraganeko arrakastara mugatu nahi.

Euskararen etorkizuna, munduan existitzen diren milaka hizkuntza gehienena bezala, ez dago bermatuta: egiten dugunaren arabera da, belaunaldi bakoitzak egiten duenaren arabera. Baina ez dago arrazoirik euskarak etorkizun beltza izango duela pentsatzeko. Gakoa ez gelditzean datza, aurrera jarraitzean, beti aurrera, positiboki eta etenik gabe hobekuntzaren norabidean.

Euskararen ezagutzaren esparruan eman diren aurrerapausoak ez dira hizkuntzaren erabilerari dagokionez errepikatu. Eta horretan datza euskararen etorkizunaren gakoa, bere erabilera esparru jakin batzuetan areagotzean eta beste berri batzuk irabaztean. Horretarako funtseko tresna adostasun soziala, politikoa eta kulturala da. Gizartearen inplikazio eta konpromiso aktiboa ezinbestekoak dira edozein gauza lortzeko. Adostasun hori bi printzipiotan oinarrituta dago:

- hizkuntzen artean berdintasun soziala lortzera zuzendutako politika positiboak sustatzea;
- politika horiek gizartearen gehiengoaren borondata eta erritmora egokitzea. Pertsona guztiak, euskaldunak zein euskaldunak ez direnak, deserosotasun eta pazientzia maila batzuk onartu beharko dituzte. Bide horretatik soilik izango da atzerazina normalizazio prozesua, aurrerapenak txikiak diruditen arren.

Azkenik, EAJ-PNVn ekimen sozial zabal eta anitzaren garrantzia azpimarratu nahi dugu: euskarak, euskal herritar guztion ondare komunak, konpromiso sozial indartsua eta anitza behar du bere biziraupen eta garapenerako.

Horrela, euskarak eta hizkuntzen arteko elkarbizitzak dena dute irabazteko, eta batik bat, Euzkadiko elkarbizitza soziala.

⇒ Elkartasunaren erronka: pertsonentzako Nazioa

Euzko Alderdi Jeltzalea botere autoritario eta zentralistaren eredu jarraitzen zuen nazioarteko testuinguru batean jaio zen. Azken horretan, askapen nazionalako helburuak garapen ekonomikoko, egituraketa sozialeko eta birbaiezen kultureko politikekin batera konbinatu zituen. Horrenbestez, EAJ-PNV bere hastapenetatik berrikuntzaren eta aldaketa sozialaren aldekoa izan da eta bizitzaren ikuspegi aurrerakoia zuen taldea izateagatik nabarmendu da.

Bere proiektua demokraziaren etengabeko eskakizunen ikuspuntutik soilik uler daiteke. Bere helburu eta estrategiak poliki-poliki definituz joan dira, historiako momentu bakoitzaren eskakizunen arabera, instituzioak eta ideologiak pertsonen zerbitzura dauden tresnak direla kontuan hartuta betiere. Alderdiak herritarren askatasun indibiduala onartu, aldarrikatu eta errespetatuko duen askatasun nazionala soilik lortu nahi du. Era berean, herritarrei, lortu nahi den eredu sozialaren garapenean parte har dezaten, adierazteko eta antolatzekeo eskubide iraunkorra emango zaie.

Etorkizuna eta bizitzaren ikuspegi humanista ezinbesteko ezaugarriak dira EAJ-PNVren lanerako. Bokazio horren jarduketa printzipioak Giza Eskubideei buruzko Deklarazio Unibertsalean oinarrituta daude eta Deklarazioak honakoa dio bere 1. Artikuluan: gizaki guztiak aske dira jaiotzez eta berdinak duintasunean eta eskubideetan, eta denek arrazoimena eta kontzientzia dituztenez gero, anaitasunez jokatu behar dute elkarrekin.

Praktikan, EAJ-PNVren politika sozialen helburuak honakoak dira:

- Giza eskubide guztiak defendatzea.
- Beren kondizio soziala edozein dela ere, pertsona ororen duintasuna defendatzea.
- Justizia soziala eta elkartasuna sustatzea.

Gaur egun, globalizazioak eta errealitate sozial berriek aurkezten dizkiguten erronka handiei aurre egin behar diegu bereziki. Azken horiei dagokienez, Euzkadik bere buruan konfiantza badu lortuko du arrakasta. Bestalde, euskal gizartearen baitan eta bere nazioarteko proiektioan elkartasun ekintzekin lotutako helburu zehatzak eta estrategia argiak definitzeko ahalegin kolektiboa ahalbidetu beharko du.

Nazioa eta elkartasuna.-

Euskal gizarteak, garatutako gizarte gehienek bezala, bilakaera eta aldaketa nabarmenak izan ditu azken urteotan.

2015etik gertu gauden honetan, ezagunak eta gure inguruko gainontzeko gizarteekiko ere komunak diren hiru gertakarik modu erabakiorrean baldintzatuko dituzte herritarren eskakizunak eta behar horiek asetzera zuzendutako politika sozialak: populazioaren zahartzea, familiaren baitan gertatzen ari diren aldaketak eta migrazio prozesuak.

Gaur egungo egoera demografikoa oinarrizko hiru ezaugarri baldintzatzen dute: jaiotza-tasa baxuak, bizi-itzaropena handitzeak eta inmigrazioak, hain zuzen ere.

Gainera, beharrezkoa da azken urteotan gizartearen eta familiaren baitan gertatu diren aldaketei erreparatzea, esparru publiko eta pribatuan gizon eta emakumeen rolen aldaketari eta migrazio prozesuen intzidentziari.

Aldaketaz betetako testuinguru honetan, gizartea da, bere instituzioak, zerbitzuen, prestazioen eta laguntzen bitartez eskari sozialei erantzuna eman behar dietenak, tradizionalki eta neurri handi batean familien eta bolondresen estaldura baitzuten. Ahultasun egoeran dauden pertsonen babesaren ardura eta beren eskubide sozialen defentsa gizartearen eskuetan dago batik bat.

EAJ-PNVk betidanik izan du bere nortasun-ezaugarrien artean elkartasunaren eta justiziaren ideia aktibo bat, eta autonomia indibidualarekin eta ardura sozialarekin lotutako printzipioa, askatasun nahiak eta justizia soziala, modu orekatuan artikulatzeko lan egin du. Javier de Landaburuk jada zioen moduan: “nazionalismoaren xedea nazioa berreraikitzea bada, bere eraikuntza nazionalako programak eduki soziala izan behar du”. Beste hitz batzuetan, gizarteratzea eraikuntza nazionalaren atala da.

EAJ-PNVk kaltetuenei zuzendutako arreta-programak garatzearen eta “euskar herritar berrientzako” hartze eta gizarteratze programak sustatzearen aldeko apustua egin du. Azken finean, justuagoa eta orekatuagoa den gizarte baten alde lan egitea da kontua, askeago izango den gizartea lortze aldera.

Horrek EAJ-PNVren jarduketa printzipioak eta balioak gizarte-politikan aplikatzea eragingo du, eta baita helburu hauek lortzeko baliagarriak izango diren politika publikoak txertatzeko proposatzea ere.

Koiunturak esku hartze publikoaren beharra duen esparru guztietan parte hartzea eragingo du: familiaren esparrua, babesik gabeko egoeran dauden pertsonak, haurtzaroa, autonomia pertsonala sustatzea eta mendekotasun egoerekiko prebentzioa eta parte hartzea, inmigrazioa, etxebizitza, osasuna eta hezkuntza, besteak beste.

Horrela, gizarte zerbitzuen sistema bat eraikitzearen aldeko apustu gisa, eskubide subjektiboen onarpenean oinarritutakoa, EAJ-PNVrentzat erronka bat da gure garaiekin bat datorren gizarte zerbitzuen sistema bat finantzatzea. Horrek geroz eta gastu handiago bati sistema ezbaian jar lezaketen aurrekontu tentsioak ekiditeko nahikoa baliabide gehitu behar izatea eragiten du.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.-

Euzko Alderdi Jeltzaleak emakumeen aldeko errebindikazioen historia luzea du, arro egoteko modukoa. EAJ-PNVk eguneratu eta garatu beharreko politika kultura.

Emakume nazionalistek gizartean eta politikan pisu handiagoa izateko borroka bere lehen helburua lortu zuen 1922ko maiatzaren 7an, Bilbon Federación de Mujeres Patriotas – Emakume Abertzale Batza sortzeaz batera. Azken hori Estatu espainiarreko emakume nazionalisten lehen erakunde politikoa izan zen. Horrela, euskal emakume nazionalistak gizonezko kideei bolondres laguntzetik politikan parte hartzera igaro ziren. Oso garrantzitsua izan zen beren propaganda lana, idazki eta mitinen bitartez egindakoa batik bat. Jarduera hura garai hartako pentsamoldearen aurkakoa zen eta autoritateen jazarpena pairatu zuen. Hori dela eta, emakume nazionalista batzuei kartzela zigorra ezarri zitzaion.

Emakume nazionalistak Euskadiren eraikuntza nazionala lortzeko lan handiaren protagonista nagusiak izan dira eta dira, baztertutako sektoreen gizarteratzea, hezkuntza eta prestakuntza, emakumearen askapena, literatura, kultura eta euskara bezalako esparruetan. Emakume haiek gizarte hartan leku bat topatzen jakin zuten eta ahal izan zuten neurrian esparru publikoan esku hartzera igaro ziren. Gaitasun profesional bat lortzen ahalegindu ziren eta soldatapeko lanaren merkatuan sartu ziren, gizarte ekimen guztietan esku hartu zuten eta baita –artean hasiberriak– hasiera batean gizonezkoenak soilik izan ziren erakunde politiko eta sindikaletan.

Hala eta guztiz ere, hamarkadak dira emakumeen eta gizonen arteko legezko berdintasuna lortu zela eta oraindik ere emakumeekiko diskriminazioa nabarmena da eremu askotan.

EAJ-PNVk, berdintasun erreal baten alde positiboki esku hartzeko dagoen beharra ezagututa, instituzioetatik abiatuta Lege aitzindari baten onarpena zuzendu du, beharrezko tresnen bitartez egitura izaerako fenomeno honi ekitea ahalbidetzen duena.

Halaber, pentsatu du garrantzitsua dela prozesu honetan barne mailan ere parte hartzea eta aldaketa hori ahalbidetzeko eta bere ezarpena behar bezala kudeatzeko tresna egokiak izatea.

Gaur egun, ordea, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde hamarkadetan zehar lan egin ostean, kezka nagusia emakumeek garapenari egiten dioten ekarpena eta politika publikoek emakumeengan eta gizonengan izan duten eragina ezagutzean datza. Berdintasunaren kontua ez dagokio soilik emakumeen garapenaren esparruari, eta egun gizarte guztiaren garapen ekonomiko eta sozialarekin lotuta dago.

Testuinguru honetan, gizonekin batera emakumeen gaitasuna erabiltzeko beharra nabarmendu da helburu komun bat lortze aldera: gizarte garapen

orekatua. Horretarako beharrezkoa da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen iraunkortasuna azaltzen duten faktoreak aztertzea.

Horrela, politiketan jauzi kualitatibo bat gerta dadin, EAJ-PNVk gizarte kapitalaren esparruan lan egitea beharrezkoa dela uste du, gizon eta emakumeen jokabidea finkatzen duten arauen esparruan, erakundetik zein esparru publikotik sustatu beharreko estrategiak berriro orientatzeko bitarteko gisa.

EAJ-PNVren arabera, emakume eta gizonen arteko boterearekin lotutako arau, balio eta harreman desberdinak aldatzeko, hurrengo prozedurak beharrezkoak izango dira:

- Erabakiak hartzeko eremu publiko zein pribatuetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean oinarritutako parte hartzea.
- Berdintasuna hazkunde ekonomikoaren, gizarteratzearen eta egonkortasun politikoaren oinarritzko ezaugarria dela kontuan hartzea.
- Gizarte gutzia, gizon eta emakumeak batera, helburua lortzen saiatzea.

Gainera, beharrezkoa izango da legearen eta instituzioen esparruan esku hartzea, jarrera diskriminatzaileak aldatzeko erabaki politikorik ez duten legeek desasostasun handiak eragiten dituztela kontuan hartuta, arauaren eta errealitatearen artean dagoen ezberdintasuna dela eta.

Hori dela eta, EAJ-PNV gizon eta emakumeei zuzendutako ekintza espezifikoak egitearen aldekoa da, antolamendu gaitasuna sustatzeko, instituzioetan kultura berri bat eraikitzeko eta gizarte egituraren aldaketa horiek eragingo dituzten aktibo berriak bultzatzeko.

Emakume nazionalistek 1933an Tolosan egin zen Batzar Nazionalen 4. Estatutua (emakumeen afiliazioari buruzkoa, gizonekiko berdintasunean) onar zezatela lortu zuten, eta EAJ-PNVk, barne mailan, emakume haiek zehaztutako bidea jarraitu zuen. Horrela, ordura arte EAJ-PNVren erakundean ere bidezkoa ez zen ohitura sozial bat baliogabetzea lortu zuten.

Hori lortzeko erabakiorra izan zen EAJ-PNVn euskal nazionalisten belaunaldi berri bat, gizarte aldatetekiko konprometituagoa zegoena, sartu izana. Horien artean Jose Antonio de Agirre nabarmendu beharra dago, garai hartako oztopoak gainditu zituen eta esparru garrantzitsu honetan ere Alderdia modernizatu zuena. Era berean, etorkizuneko belaunaldientzako konpromisoaren bideari ekin zion.

75 urte beranduago, guri dagokigu berdintasun eraginkorraren erronkari konplexurik gabe aurre egitea. Eta azken hori posible izan dadin, emakumeek gure erakunde politikoaren bizitzan parte hartze handiagoa izan dezatela

beharrezkoa da. Gure konpromisoa izan behar du, EAJ-PNVko gizon-emakumeona, justizia, elkartasun, hazkunde eta integrazio printzipioekin bat .

Justizia Nazioen artean.-

1960an munduko herrialde aberatsenen aberastasuna herrialde txiroenena baino hogeita hamar aldiz handiagoa zen. 1990ean, berriz, aberastasuna hirurogei aldiz handiagoa zen. Joera honek 2025ean izan lezakeen proiektioaren arabera, urte horretan bi mila milioi pertsona egongo dira munduan muturreko pobrezia egoeran.

Aberastasuna sektore txiroenetara iristeko lehenik eta behin ekoiztu egin behar dela azpimarratzen duen axiomaren aurka, urte batetik bestera globalizazioaren eta hazkunde ekonomikoaz soilik arduratzen diren politiken bitartez, desberdintasunak, murriztu beharrean, handitu egiten dira.

Nazio Batuen hitzetan, globalizazioa ez da soilik dirua eta produktuak trukatzea. Are gehiago, munduko biztanleek elkarrekiko geroz eta mendekotasun handiagoa izatea eragiten du, ekonomiaz gain kultura, teknologia eta gobernuko egiturak ere barne hartzen dituen prozesua da.

Azken horien ondorio gisa, Estatuak ekonomia erregulatzeko eta kontrolatzeko duen gaitasuna geroz eta eskasagoa da, botere ekonomikoa gutxi batzuen eskuetan dago eta transnazionalak munduko merkataritzaren eta ekonomiaren gehiengoa kontrolatzen dute. Horrekin batera, Iparraldea-Hegoaldea desberdintasuna geroz eta handiagoa da osasuna, hezkuntza eta teknologia berrien esparruan. Iparraldean garatu gabeko eremuak daude eta hegoaldean berriz, garatutako irlak. Migrazio jendetsuak gertatzen ari dira, Iparraldeko aukerak eta Hegoaldeko aukera ezak bultzatuta. Gainera, ohikoak dira natur baliabideak eskuratzeko gatazkak.

Errealitate hori ikusita, EAJ-PNVk, bere filosofia humanistarekiko leialak, uste du beharrezkoa dela bakea lortzeko eta elkartasunerako eskubidearen, giza eskubide gisa garapenerako eskubidearen eta munduko leku guztietan bizitza duin bat izateko eskubidearen alde lan egitea eta jarrera jakin batzuk sustatzea.

Testuinguru honetan, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren errealitate bat izan da betidanik Euskal Herrian. Instituzio publikoak beste herrialde batzuekin elkartasun ekintzak sustatzeko beharraz jabetu aurretik ere, euskal herritar askok, arrazoi erlijiosoek, humanistek, politikoek edo etikoek bultzatuta, elkartasun hori bizitza konpromiso bihurtu zuten. Horrela, Euzkadiko nazioarteko elkartasun mugimenduaren oinarriak finkatu zituzten, gaur egun ezin hobeto errotutako errealitate baten lehen harriak.

EAJ-PNV atzera bueltekin eta itzuliekin bat ez datorren eta kalitatezkoa den lankidetzaren aldekoa da. Komunitateekin eta herriekin topaketak ahalbidetzen dituen lankidetzaren aldekoa, historikoki gure herria munduan definitu duten balio etikoak partekatuzko.

Hori dela eta, EAJ-PNVk ere Nazioarteko Komunitatearen aldeko apustua egin du. Izan ere, azken horrek, Nazio Batuen gidaritzapean, Milurteko Helburuak zehaztu zituen 2000an egindako Milurteko Gailurrean. Helburu horiek 2015erako munduko desberdintasunak murriztu nahi dituzte. Bestalde, EAJ-PNV “Parisko Deklarazioko” (2003) erabakien, garapenerako nazioarteko laguntzaren eraginkortasunari buruzkoen, eta 2005eko abenduaren 20ko “garapenari buruzko Europako adostasunaren” alde ere badago.

Konpromiso hori Euskal Herriak bere historia guztian zehar erakutsi duen elkartasun konpromisoan oinarrituta dago.

EAJ-PNVren elkartasunerako konpromisoari instituzioen zein gizartearen ikuspuntutik ekin behar zaio. Era berean, beharrezkoa da ikuspegi kuantitatiboa (garapenarekin lotutako transferentziak errealitate bihurtzea, herrialde txiroen alde), Nazio Batuen Milurteko Helburuen Deklarazioan zehaztutakoa betez, zein kualitatiboa (lankidetzarekin lotutako formulak ikertzea eta proposatzea, herrialde txiroak beren garapenaren agente izan daitezen) kontuan hartzea.

Nazioarteko elkartasun honen aldeko apustuan oinarrituta, EAJ-PNVk uste du ezinbestekoa dela herrialde txiroei gure Herrialdeak urteetan zehar garatutako esperientzia eta estrategien berri ematea. Azken horiek ondorengo eremuak barne hartzen dituzte: gure nortasunari eustea, gure hizkuntza esparru publikoan eta instituzionalean berreskuratzeko politika positiboak, gure ekonomia berreskuratzeko lana eta gure Herrialdeak globalizatutako mundu batean duen pisu geroz eta handiagoa.

EAJ-PNVren ustez beharrezkoa da herrialde txiroetako agenteek bitartekoak izan ditzatela, beren gobernu eta garapen politikak eta dinamikak errealitate bihurtzeko funtsezko ezagutza eskura dezatela. Horrela, gai izango dira beren kasa berezkoa duten nortasuna garatzeko eta babesteko.

EAJ-PNVk ezagutzaren globalizazioa, sarean lan egitearen aukerak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien aurrerapenek eragiten dituzten ondorio positiboak herrien arteko justiziaren alde erabiliko ditu.

Nazioen arteko elkartasuna eta justizia kontuan hartuta, EAJ-PNVk bere ekintza politikoa, parte hartzen duen tokiko plataformetan zein Europako eta nazioarteko erakundeetan, Giza Eskubideen defentsan, bakearekiko eskubidean, giza eskubide gisa garapenerako eskubidean, duintasunerako eskubidean eta herrien arteko justiziarako eskubidean oinarrituko du.

Era berean, nazioarteko erakundeek hasiera batean zuten funtzioa biziberritzearen eta berreskuratzearen aldekoa da, XX. mendeko munduko gatazkek eragindako hondamenen esperientziari eta printzipio horiek mundu mailan aplikatzeko kontzientzia soziala pizteari eta sustatzeari dagokionez.

⇒ Sormena eta modernitatea

2000ko martxoan, Europako Kontseiluaren deklarazioarekin batera, Europar Batasunak ezagutzen oinarritutako gizartearen munduko lidergoa ezarri zuen 2010erako helburu gisa.

Testuinguru horretan ulertu behar dugu Lehendakariak Euzkadi berrikuntzaren esparruan Europako erreferente bihurtzeko hartu duen konpromisoa. Ezagutzaren, ikerketaren, prestakuntzaren eta berrikuntzaren aldeko gizarte mugimendu handia sustatu nahi da. Eta etorkizuneko balio hauek guztiak, oro har, pertsonen eskuetan daude, lanerako, prestakuntzarako, sormenerako eta arriskuak onartzeko duten gaitasunean. Batik bat, handia izatea derrigorrezko abantaila bat ez denean eta gaitasun horrek gizarte baldintza eta ingurune mesedegarriak izan ditzakeenean, ekonomikoki naturalak diren eremuetan aurki daitezkeenak bezalakoak: nortasuna eta dinamismoa duten eta munduari irekita dauden eremuak.

Ezagutzen oinarritutako gizartea.-

EAJ-PNVren arabera, gaur egun nazioen hazkunde ekonomikoa eta elkartasunarekin lotutakoa ezagutzaren aurrerapenean datza. Gure etorkizuneko ongizatea gizarte gisa egun zaharkituta dauden edo urte gutxi barru zaharkituta geratuta diren produkzio sektoreetarako aukera bidegarriak garatzeko dugun gaitasunaren arabera izango da neurri handi batean.

Horrenbestez, EAJ-PNVrentzat ezagutza eta berrikuntza lortu beharreko helburuak dira. Horretarako, instituzioen, ekonomia eta hezkuntza agenteen eta sektore publiko eta pribatuen artean sarean lan egitea sustatuko du. Eta hori guztia lortzeko beharrezkoa da, batik bat, talentuaren, etengabeko energia iturri horren, zurruntasun demokratikoak eta legezko trabak gainditzea. Elkartrukeak, finantza gaitasunek edota teknologia berriek eskaintzen duten informazioaren eskuragarritasun handiak ez dute hazkundera mugatzen edo baldintzatzen. Gaur egun, inbertsiorik onena hezkuntzan, prestakuntzan, ikerketan eta aurrerapen horiek aplikatzean datza.

Sormenaren etsairik handiena iragan arrakastatu batek baldintzatutako erosotasuna da. Berrikuntzak arriskuaren kultura eragiten du, ardura eta prestakuntza. Eta praktikan aplikatzeko, berrikuntzak gure enpresen eta erakundeen nazioarteko garapenerako ingurune mesedegarria ere behar du. Hori da gizarte dinamismoaren eta gizarteek izan dezaketen protagonismoaren gakoa.

Berrikuntza unibertsitateetan eta ikerketa zentroetan zein enpresetan eta diseinatuko dugun elkarbizitza eremuan eta kultura munduko eta politika publikoetako adierazpen moduetan garatu beharreko balioa da.

Industria eta berrikuntza politikak.-

Euskal ekonomiaren bilakaerak egoera zailenak gainditzea eta Europako lehen postuetan kokatzea posible dela erakutsi digu, estrategia serio bat, horretarako borondatea eta baliabide egokiak baditugu. Dena dela, emaitza onenek ere hausnartzera bultzatzen gaituzte, eta nabarmen aldatu den mundu honetan estrategia berriak diseinatzera. Munduko lehiaren fasera eta, batik bat, paradigma berri batera igaro gara. Bertan ezagutza ezinbesteko faktorea da, lurraldeari atxikitako berrikuntza funtsezko estrategia eta sarea mundu mailan parte hartzeko tresna “zehaztugabea”.

Baina gaur egungo arazoek eta erronkek eredu aldaketa bat eskatzen digute, kapitala-lana faktoreen kostuan oinarritzen zenetik berrikuntzan oinarritutako beste ekonomia eredu batera igarotzea. Azken honetan, ondorengo ezaugarriak ezinbestekoak izango dira: produktibitatea, prozesuen berrikuntza, produktu berriak sortzea eta oinarri teknologikoa duten enpresen sustapenaren bitartez kudeaketa aldatzea. Bestalde, arazo eta erronka berriek energia berriztagarrien aldeko apustua biderkatu dezagula eskatzen digute, energiarekiko dugun mendekotasun pixkanaka murriztu dadin.

EAJ-PNVn jakin badakigu etorkizunari buruz pentsatzeko atzerriko teknologiak eta kostuen abantailak soilik kontuan hartzea nahikoa ez dela; berrikuntzaren, kalitatearen eta ezagutza berriaren erronkari aurre egin behar diogu. Eta horretarako hiru helburu zehaztu ditugu:

- informazioaren eta ezagutzaren gizartea eraikitzea;
- Euzkadi, ikerketaren eta teknologiaren esparruan, Europarako erreferente bihurtzea;
- guztizko kalitatearen printzipioa erakundeen kudeaketa modu gisa kontuan hartzea.

Horretarako, garrantzi berezia dute komunitate ikertzailea eta beren jarduna areagotzearekin lotutako ekintzek. EAJ-PNVn azpiegitura berriak (parke teknologikoak eta ikerketarako goi mailako institutuak) sortzeko eta talentua erakartzeko eta berreskuratzeko konpromisoa dugu. Bestalde, berrikuntzaren esparruan konprometituta dauden instituzio eta gizarte sektoreek sustatzen duten ikuspegi baten aldekoak ere bagara: disziplina arteko ikerketa eta konbergentzia teknologikoa, ezagutza aplikazio aurreratuetan islatzeko orientazio gisa.

Unibertsitatea eta ikerketa.-

Unibertsitateak herrialde baten garapenerako azpiegitura estrategikoa izan behar duela munduko gizarterik aurreratuenen ohiko ideia da. Unibertsitatea aldi berean ezagutza ekoizten eta hedatzen duen instituzio bakarra da. Eta

horrek kalitatea eta kritika gehitzen dizkio, eta hazkunde kultural pertsonalaren eta ezagutza horren erabilera sozial praktikoaren zerbitzura dagoen tresna boteretsu bihurtzen du. Hori dela eta, unibertsitateak gizarte modernoaren garapenerako motor nagusienetakoa dira eta Euzkadi ez da salbuespena.

Euskal gizarteak azken hamarkada hauetan ahalegin handia egin du I+G+b-ren esparruan duen konpromisoa areagotzeko. Hala ere, ahalegina ez da nahikoa izan eta lortu beharko lukeen orekatik urrun geratu da. Horregatik, produkzio zientifiko eskasa duen unibertsitate eta herrialde bat izatera iritsi gara. Are gehiago, oinarrizko ikerketa eta ikertzaileen prestakuntza gure erronka handienetakoa da gure ikerketa sistema osatzeko eta orekatzeko eta, testuinguru honetan, unibertsitatea ordezkazina da. Horregatik, esparru honetan gure ikerketa lana homologatzeko, unibertsitateko ikerketari zuzendutako baliabide kopurua areagotzea beharrezkoa da, Europako konbergentziaren eremuan helburu eta parametro zehatz batzuk kontuan hartuta. Baina, gainera, gure Zientzia eta Teknologiako sisteman ikerketa organismo gehiago (publikoak, pribatuak edo mistoak) ezarri beharko lirateke, azken horien garapenak gerora enpresetan eta gizartean txertatzeko.

Giza garapen iraunkorra.-

80ko hamarkadaren amaierara arte “garapena” hazkunde ekonomikoaren arabera kalkulatu zen, BPGren hazkundearen eta beste adierazle ekonomiko batzuen bitartez. Baina 1989an, Nazio Batuen Garapenerako Programak (PNUD) beste adierazle bat ezarri zuen, pertsonak ardatz eta erdigune zituen: Giza Garapenerako Indizea (IDH), aukerak, eskubideak eta askatasunak izateko aukera unibertsala kontuan hartuta. Orainaldiko premiak asetuko dituen garapena, etorkizuneko belaunaldiak beren premiak asetzeko izango duten gaitasuna arriskuan jarri gabe. Garapen iraunkorra justiziarekin eta aukera berdintasunarekin lotuta dago, tokian tokiko eremuan zein mundu guztian.

EAE, Eustaten arabera 0,951ko indizea duena, bigarren postuan dago Norvegiaren (0,956) eta Suediaren (0,946) artean. Hala eta guztiz ere, gaur egungo egoerak ingurumen ikuspegia txertatzeko eta transbertsalizatzeko eskatzen digu, ingurumena “sektoriala” eta esparru zehatzekoa den zerbitzu bakoari gehiago baita.

Euzkadi iraunkortasun erreferentea izan daiteke hiru esparrutan: a) munduko erronketan aktiboki parte hartzea, b) berritzaileak diren eta esporta daitezkeen jardunbide egokiak; c) ingurumenarekiko iraunkorrak diren praktiken alde (hezkuntza, kontsumoa, birziklatzea, garraioa, etab.) herritar guztiek duten konpromisoa.

EAJ-PNVk Euzkadi iraunkortasunaren eremuko jarraibideak betetzen lehenengoak diren herrialdeen artean kokatu nahi du. Horretarako, bere dimentsioa, malgutasuna eta maila ekonomiko egokia aprobetxatu behar ditu eta euskal gizartea prestatu eta kontzientziatu behar du, ingurumena errespetatuko duten jokabideak izan ditzan.

EAJ-PNVk uste du ingurumena planeta honetako orainaldiko zein etorkizuneko biztanle guztien ondare komuna dela. Horregatik, giza garapen iraunkorreko eta ingurumeneko esparruan dituen helburuen artean, Ingurumenerako Eskubideari buruzko Bizkaiko Deklarazioan jasotzen den bezala, honako hauek daude:

- 1) Gizaki orok ingurumen osasuntsu batez gozatzeko duen eskubidearen ikuspuntutik, esparru indibidualean zein kolektiboan, I+G+b-ren garapena munduko ingurumen erronken zerbitzura jartzea eta ingurumena babesteko, zaintzeko eta berreskuratzeko ekintza instituzional eraginkorrak martxan jartzea. Era berean, beharrezkoa da hezkuntzaren eta kulturaren bitartez gizartea sentibilizatzea, pertsona orok ingurumenarekiko errespetagarriak eta iraunkorrak diren bizimodua eta kontsumoa izan ditzan, eta beste eragile unibertsal batzuekin batera sarean lan egitea.
- 2) Gizaki orok giza garapenerako duen eskubidearen ikuspuntutik, konpromiso bat nazioarteko elkartasunarekin eta garapenerako nazioarteko lankidetzarekin. Horretarako, nazioarteko organismoen parte hartzea duen (PNUD, PNUMA, FAO, UNESCO, NBE, etab.) giza garapen iraunkorra kontuan hartuko da.

NORMALIZAZIO POLITIKOA LORTZE ALDERA ERABAKITZEKO ESKUBIDEA SUSTATZEA

Euskal gizartea sinetsita dago euskal gatazka politikoa bakea eta normalizazio politikoa binomioaren bitartez konponduko dela. Azken finean, bi konpromisoren arteko lan bateratuaren emaitza izango da: BAI bakean elkarbizitzeari eta BAI euskal gizarteak libre eta demokratikoki erabakitzeari.

Hamarkada batean baino epe laburragoan euskal gatazka gainditzeko sustatu diren ekimen politikoek –Ajuria Enea Mahaia-Ardantza Plana desblokeatzeko saiakera, Lizarrako prozesua, Estatutu Politiko Berriaren proiektua, Loiolako prozesua– itxaropenak eta ilusioa eragin zituzten gure gizartean. Euren porrotak, aldiz, konponbidea hurbil dagoen konbentzimenduaren bitartez gainditu behar dugun pesimismoa.

Gizarteak gure herrialdearen gatazka politikoa konpontzen lagunduko duten proposamen demokratiko positiboak nahi ditu. Normalizazio politiko ezak eragindako egitura arazoak konponduko dituzten konponbideak nahi ditu.

Normalizazio politikoari buruz hitz egiten dugunean Euskal Herria subjektu politiko gisa onartzeari eta azken horrek autodeterminaziorako duen eskubideari erreferentzia egiten diogu. Beste hitz batzuetan, euskal herritarrek, askatasunez eta demokratikoki, Herri gisa beren etorkizunari buruz erabakitzeko duten eskubidea errespetatzeari.

EAJ-PNVk, herriaren borondatea eta euskal gizarteak bere etorkizunari buruz askatasunez eta demokratikoki erabakitzeko duen eskubidea errespetatzeko printzipiotik abiatuta, erabakitzeko eskubidearekin eta euskal herritarren erabakiarekiko edo erabakiekiko errespetua bermatuko duten prozedurekin lotutako akordio bat sustatzeko konpromisoa hartu du. Askatasunez erabaki ahal izateko ituna.

Erabakitzeko eskubidea eta berau erabiltzea Herriak existitzearekiko eta onartzearekiko bateragarria da. Herritar guztiei berdintasun egoeran aplikatzen bazaie, euskal herritarren topaketa gune bihurtu behar dugun tresna demokratikoa da.

EAJ-PNVren iritziz, Estatutu Politiko Berriaren proiektuak, Eusko Legebiltzarraren gehiengo absolutuarekin onartutakoak, eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztutako Hobekuntza Erreformak, euskal gatazka politikoari konponbide bat bilatzeko nahikoa printzipio eta eduki jasotzen dituzte.

Euskal herritarren gehiengoaren borondatearen emaitza legitimitate politikoaren eta demokratikoaren oinarria dela sinetsita, EAJ-PNVk beharrezkoak diren

ekimen politiko guztiak sustatuko ditu euskal gatazkaren konponbidea ahalbidetuko duen testuingurua sortzeko.

EAJ-PNVren helburuetako bat da Euzkadiko eta Estatu espainiarreko alderdi politikoen eta Instituzioen arteko adostasunaren emaitza izango den akordio bat lortzea. Giza eskubideak eta askatasun demokratikoak errespetatzeko esparruan, gizarteak berretsi beharko duen testuinguru berria.

Horrela, EAJ-PNVren ustez, alderdi politikoak eta Instituzioak, akordioa lortzeko borondatean oinarrituta eta beto mota guztiak gaitzetsiz, euskal gizarteari konponbideak eskaintzen ahalegindu beharko dute. Blokeo egoerak aurreikusita, komenigarria litzateke euskal gizarteak berak, herri kontsulta bezalako tresna demokratikoaren bitartez, existitzen diren oztopoak gainditzen lagunduko digun eta guztioi herriaren borondatea errespetatzera derrigortuko gaituen prozesua onetsiko balu.

Arduraz eta erabakitzeko indarraz baliatuta, aipatu testuingurua lortzeko baldintza egokiak sortzea gure betebeharra izango da, Euzko Alderdi Jeltzalearen betebeharra, hurrengo lau urteetan zehar.